



Bonsaiaren arteak



Goierriko turismo
produktu berriak



Biosasieta S.A.:
biogasa elektrizitate
bihurtzea helburu



Heber Garmendia
moto-kroslaria



GARMENDIA
Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

egiteko prestatuak: komunitateak, baserriak, txaletak eta abar

Tel-Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA



Edozein motatako teilatuak

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08



**GOIERRITARRA aldizkaria lagundu,
urtean 1.500 pezetako kuota ordainduz.**

Izen abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:**

Adina: **NAN:** **Lanbidea:**

Banketxea: **Bulegoa:**

Kodea: **Kontu zenbakia:**

Non zer

6 ESKUTITZAK

7 TXANDAKA: Idurre Eskisabel

9 KATE MOTZEAN: Maddalen Barandiaran

10-11: Aralar Bonsai elkarte

12-13: Turismoa Goierri

14: Sukaldaritza euskaraz

15: Bisosasieta S.A.

16-25 KRONIKAK

SEGURA 16: Il. margo lehiaketa

LAZKAO 17: Erakusketa

MUTILOA 17: Mus txapelketa

ATAUN 18: Jubilatuen txapelketak

OLABERRIA 19: Kultur astearen amaiera

LEGORRETA 19: Inauteriak

ZALDIBIA 20: 'Zaharra' eta 'Pototori' omenaldia

BEASAIN 21: Pako Lizarralde mendizalea

ZEGAMA 22: Goierri gida turistikoaren aurkezpena

ORDIZIA 23: Osinalde Sariko bertso-afaria

ZERAIN 24: Bola txapelketa

ORMAIZTEGI 24: Bazkariak

25 KIROLA: Heber Garmendia

26-27: AGENDA

28 DEBALDEKO IRAGARKIAK

29 ZAHARRAK BERRI:

Artxanberri, Patxi

Errota, Jainkoa

30 FOTO ZAHARRA: Beasaingo Korpus Kristi eguna



Laguntasuna Errondailaren diskoa 40. urteurrena ospatzeko

Laguntasuna Errondailak bere 40. urteurrenean lehen diskoa kaleratu du. Otsailaren 26an Ordiziako Barrena jauregian egin zen diskoaren aurkezpenean Eliseo Alonso errondailako lehendakariak eta Alberto Inza grabaketako teknikariak hitz egin zuten.

Diskoa Errondailak berak ordaindu du eta Ordiziako hainbat taberna eta dendetan jarri dute salgai, CDa 1800 pezetan eta kasetea 1000 pezetan. Azalean Errondailaren argazkia ageri da Barrena jauregiaren aurrean. Barnean 24 abesti daude. "Denok abestu ditugun abestiak daude bertan: Clavelitos, La mañanitas, balsak, habanera, paso doblaren bat... abesti herrikoiak", diote Errondailakoek.

Ordiziako zineman grabatu zuten, 3 egunetan zehar. 13 kideak biltzeko zailtasunak zituzten eta ez zen beste erarik izan. Alberto Inzaren esanetan, "meritu handiko grabaketa izan da, hiru igandetan grabatu dugu presaz.

Bitarteko handirik gabeko grabaketa izan da".

Zailtasuna izan da baita ere Errondailak grabatzen duen lehen diskoa izatea. "Esperientzia falta hau dela eta lehenik Errondaila honetarako prestatu beharra izan da. Nik uste oso ondo egin dutela eta ziur naiz diskoan dagoen guztia gustatzeaz gain unkitu egingo zaituztela", amaitu zuen Albertok.

Eskerrak

Eliseo Alonsori eskerrak ematea egokitu zitzaion. "Atsegin handia dugu, disko hau esfortzu handiarekin egin dako lana delako. Errondailako partaide guztiei eskerrak. Alejandra Iturriz alkateari herriko agintari goren bezala disko bat eman diogu herriko ondare kultural hau jasota gera dadin. Bittor Milo kultura zinegotziari beste disko bat eman diogu. Laguntzaileei ere eskerrak: Ordiziako Udalari, Kutxari eta Euskadiko Kutxari".

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 94388 96 12 Faxe: 94388 27 19

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber Murua, Mari Flor Mendizabal, Rufino Iraola, Marian Larrea eta Idurre Eskisabel.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati) Tirada: 7.800 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria

Iparra-Hegoa Seguran

Zuberoari eskainitako astea izango da

Segurako Elorri Kultur Elkartek Iparraldeko zenbait kiderekin antolatutako astea da Iparra-Hegoa. Laguntzaileak herriko tabernak, Udala, Segura Irratia, Kutxa eta Euskadiko Kutxa dira.

✓ **Erakusketa** astean zehar: Zuberoako dantzarien jantzi erakusketa. Kultur etxean.

✓ **Astean zehar:** Segura Irratian eta Xiberoko Botza **irratietan emanaldi bereziak** aste honi buruz. Hemen Zuberoa eta Zuberoan Segura eta Goierri.

✓ **Astlehena, 20.** Hitzaldia: 'Zuberoako mendizaletasuna' Robert Piparen eskutik. Diapositiba emanaldia. Kultur etxean. Iluntzean.

✓ **Asteartea, 21.** 'Zuberoa ezagutuz' hitzaldia. Kultura, ekonomia... arloak. Kultur etxean. Iluntzean.

✓ **Asteazkena, 22.** Hitzaldia: 'Euskal departamendua'. Hizlaria: Xabi Larralde. Kultur Etxean. Iluntzean.

✓ **Osteguna, 23.** Hitzaldia: 'Euskal presoak iparraldean eta hegoaldean'. Kultur etxean. Iluntzean.

✓ **Ostirala 24.** Hitzaldia: 'Udalbiltza'. Iparraldeko eta Hegoaldeko alderdie-tako kideak. Iluntzean Kultur etxean.
Iparraldeko haurrak Seguran izango dira egunpasa. Arratsaldean umeen-tzako ekitaldiak plazan.



Gauean Niko Etxarten kontzertua plazan.

✓ **Larunbata 25.** Goizean, Iparraldeko eta Hegoaldeko produktu eta artisauen azoka plazan.

II. Margo txapelketa, margolari nobelentzat. Gaia: Segura. Parte hartze-ko egun berean azaldu. Sariak: lehen 3ri dirutan eta aipamen berezi bat. Bazkaria doan izango dute.

Arratsaldean futbola. Iparra-Hegoa. **Ondoren**, margo lehiaketako sari banaketa.

Iluntzean Segurako talo eta Irulegi-ko ardo dastaketa.

Gauean musika plazan. Iparraldeko Ekintza taldea eta Hegoaldeko Ene Bada.

✓ **Igandea, 26.** Goizean herriko txistulariak eta Iturengo Joaldunak.

Sagardo dastaketa plazan. Hendaia-ko abesbatza. Zuberoako 'Muskildi' dantza taldearen emanaldia. Gerizondoaren inguruko ekitaldia eta Herri bazkaria.

Jokin Zubeldia kalean

Martxoaren 4an libre gelditu zen Jokin Zubeldia preso, 18 urte kartzelan egin ondoren. Ordizian bizi zen abaltzisketarrak 1995etik egon behar zuen kalean.

Presoak gose greban

Txemi Arteaga. Hezurretako mina handia zuela eta, gose greba mugagabea bertan behera utzi du Beasaingo euskal presoak. 34 egun egin ditu gose greban. Valentziako kartzelan dago Arteaga. **Belen Gonzalez** lazkaotarrak ere 35 egun egin ondoren gose greba utzi du.

Juan Karlos Ioldi ataundarra eta **Mikel Azurmendik** hartu dute txanda.

Josu Aierbe

Senideak elkarteak emandako berrien arabera, Ordiziako presoak jipoitu egin zuten otsailaren 29an Topaseko espetxean. Arrastaka eta ostikoko atera zuten bere ziegatik Aierbe.

Beasain-Durango errepidea

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu berri dituen 2000. urteko aurrekontuen arabera, Beasain-Durango errepidean, Ormaiztegitik Zumarragara doan tartea eraikitzeke epea aurreratu egin dute eta 1.400 milioi pezeta aurrikusi dira aurtengorako lan hori egiteko.

Igartzako zubia

Eusko Jaurlaritzak Beasaingo Igartzako zubia monumentu izendatu du. Gipuzkoako XV. eta XVII. mendeetako 20 zubi baino gehiagok jaso dute izendapen hori.

JUANKAR

- ✱ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- ✱ Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 939 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

IBAI-ONDO

Altzariak neurri
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN





Aralarko Parke Naturala

Hiru aldaketa proposamen egin ditu Ataungo Udalak Aralarko Parke Naturalaren antolakuntza planaren barruan. Ataungo Udalak hiru proiektu gauzatu nahi ditu Parke Naturalan eta horregatik bidali dizkie proposamenak Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. Ura botilaratzeko planta, bainuetxea eta Lareo inguruko turismo proiektua egin nahi ditu Udalak Parke Naturalaren mugen barruan.



CAF-eko langileak Brasilen

Brasildik bidali digute albistea. CAFeko hainbat langile Sau Paulon dira 15 tren unitateri azkeneko ukituak ematen. Argazkia ere bidali digute: Goian: Aitor Arza, Jon Agirre, Jon Azurmendi, M.A. Azaldegia eta Jon Legorburu; behean: Joseba Tolosa, Gurutz Heras, J.A. Miranda, Fran Martinez eta Ogilvie Blanco.

KIROLA

Martin Alustiza

Binakako txapelketa bikaina burutu du segurarrak. Oier Zearra atzean duela finalerdietara iritsi dira eta Titin-Lasaren aurrean amore eman beharra izan dute. Urteak aurrera joanagatik, beti bezala, puntapuntan jarraitzen du Martinek.



Juan Ramon Mendia

Beasaindar pelotariak 2. mailako eskuz binakako txapela irabazi zuen otsailaren 25ean. Esnal hernaniarrarekin batera 22-11 irabazi zien Telleria eta Oregiri Oionen jokatu zen finalean.



Gabiriako rally sprinta

Otsailaren 27an jokatu zen Gabiriako rally sprintean Jon Agirre eta Asier Lasa izan ziren irabazleak Citroen ZX autoarekin. Israel de Pedro Ordiziakoa 4. sailkatu zen orokorrean eta garaile izan zen 5 mailan, Mitsubishi autoarekin. Mikel Telleria zegamarrak proba bertan behera utzi zuen.

Gabiriako rallya albiste bihurtu zen bi istripuetan 8 ikusle zauritu zirelako. Denak ere 17 eta 21 urte arteko gazteak ziren. Inork ez zuen zauri larririk izan.

Idazle berrientzako Igartza bekarako 3. deialdia

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkarlanean argitaletxearen laguntzarekin, III. Igartza Literatur Sorkuntzako bekaren oinarriak kaleratu berri ditu. 500.000 pezeta-ko beka jasoko du irabazleak. 35 urtez beherako idazle gazteei zuzendutako beka da. Bakarka bi liburu baino gehiago ez izatea ere beste baldintza bat da. Ekainaren 30ean bukatuko da laginak edo proiektuak aurkeztuko epea. Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzura bidali behar dira lanak. Xabier Mediguren Elizegi, Jasone Osoro eta Aingeru Epaltza idazleek osatuko dute epaimahaia.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak**

BEASAIN



CAF: Enpresa Hitzarmenerako negoziazioak etenda

Enpresako Hitzarmenerako negoziazioak etenda geratu direnez, Beasain eta Irungo CAFeko lantegietako eta Madrilgo SATeko Enpresa Batzordeak komunikabideen bitartez adieraztea erabaki dugu lan zamaren eta enpleguaren egoerari buruz egin ditugun gogoetak eta, ondorioz, langileok erabaki ditugun presio neurriak:

1.- Enpresak, unilateralki, eskaintza bat egin zuen 99ko urrian, hiru urteko iraupena, IPC-aren urteroko igoera, eta 150 enplegu finko (honek ez du enplegu netorik suposatzen) eskaintzen zituela, lan-egoera oso ziurra ez zen testuinguru batean —gaur egungoaren antzekoa—. Enpresa Batzordeak bere analisi eta balorazioa egin eta gero, eskeintza hura baztertua izan zen, ez formak, ez iraupena eta ez edukia, ez baitatotez bat Batzorde hau osatzen duten sindikatuak hitzarmen negoziaketari buruz dituzten planteamendu orokorrekin.

2.- Baztertze honen ondorioz, Enpresa Batzordeak langileen gehiengoaren onarpenarekin, hitzarmenerako plataforma bat aurkeztu du, jarraian Enpresak egun mahai gainean dagoen eskeintza honekin erantzun diolarik: ordubete gutxiago lanordu kopuruan, % 2,3 soldatan (%3ko IPC-a erreferentzi gisa), enplegu finkorik ez eta CRL-ren erabakiak ez aplikatzea, aurreratutako erretiroen eta aparteko orduen gaitan.

3.- Eskaintza horrek —eta Enpresak dio ez dutela aldatuko— ez dio erantzuten, inondik ere, langileek CAFeko aberastasun sorkuntzan egindako ekarpenari. Egoera honek, beraz, negoziazioa blokeaturik dagoela, denbora luzez iraun dezake.

4.- Zuzendaritzak 2000. urterako egin duen aurreikuspenean eskaera-kartera eta plantilla txikiagoak begietsi ditu eta salmentak 1999koen antzekoak (50.000 milioi), baina ez du eman etekinen kopururik (1999an 1.800 milioi inguru), harri-garria gertatzen bada ere, zeren, aldagai guztiak hartu baitituzte kontuan, etekinak izan ezik.

5.- Planteatzen ari diren kontratu ebentualen amaierak lotura zuzena dute kudeaketarekin eta planak egiteko eta antolatze gaitasunarekin, eta esan behar da ikasgai hori gainditu gabe jarraitzen duela oraingo Zuzendaritzak.

6.- Langileok erabaki dugu, lan-zama handiegirik gabeko testuinguru honetan, eta lehen faserako, aparteko ordurik ez sartzea lan-egunetan eta asteburuetan, hama-bostetik behin geldialdiak egitea, Ordiziara edo Beasaina manifestazioa eginez, propagandaren bitartez gatazka egoera lantegi barruan eta kanpoan zabaltzea, eta izaten diren bisitak aprobeztatzea protesta-ekintzak egiteko, eta, azkenik, erabakitako presio-neurrien betetze maila ebaluatzea eta zuzentzea.

Beasain eta Irungo CAF-eko eta Madrilgo SAT-eko enpresa batzordeak

San Benito ikastola

Eskutitz honen bidez, San Benitoko ikasleok gure ikasketxean ukatuak ditugun eskubideen inguruko azalpen bat eskaintzera gatoz.

Ikastola gure eguneroko bizitzaren zatia da eta bertako partaide garen heinean, gure oinarritzko eskubideak aldarrikatu behar ditugu; esaterako antolatze eskubidea, asanblada eskubidea, adierazpen askatasuna, bozka eskubidea (2. Batxilergo mugatua) eta greba eskubidea. Azken hau, 2. Batxilergoen esku dago bakarrik, 1. Batxilergokoek, gurasoen sinadura beharrezkoa dute irten ahal izateko eta D.B.H.-koek (1. BBB eta 2. BBB lehen) sinadura eduki arren, ezinezkoa zaie.

Eskubide hauek aldarrikatzen, ikasle bezala Euskal Herriko gatazka politikoaren jabe izanik, gure konprometua adierazi nahi dugu, guk ere zeresana badugu eta. Horrenbestez, gure oinarritzko eskubideak zanpatuta dauden honetan, ikasleok gure adostasun eza adierazten jarduten dugu, hainbat ekintza eta mobilizazioen bitartez.

Ikasle Abertzaleak - Jarrai

Eskatu Ofizioko Abokatu euskalduna

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Euskara Batzordeak bultzatuta eta Abokatuen Elkargoaren eskutik, kanpaina bat jarri dugu martxan, Euskarazko Ofizioko eta Atxilotuei Urgazpeneko txandak indartzeko asmotan. Bi txanda hauen arabera Gipuzkoako euskaldun batek abokatu euskaldun baten zerbitzu profesionala eskuratu dezake. Ofizioko txanda 1998a hasi zen martxan Gipuzkoako 6 epai barrutietan eta Urgazpenekoa urte batzuk lehenago. Ofizioko txandak zuzenbidearen arlo denak betetzen ditu: penala, laborala, kontetzi oso administratiboa, zibila eta familia. Txanda bakoitzean 100 abokatu baino gehiago daude izena eman da.

Kanpaina honekin jakinarazi nahi diegu euskaldunei, bereziki gipuzkoarrei, bi zerbitzu horiek eskura dituztela eta gainera beraien eskubidea dela. Kanpaina hau bi eremuetara zabaltu da. Alde batetik, Gipuzkoako komisaldea (udaltzaingoa, ertzaintza...) guztiei bidali zaie eskutitza esanez edozein atxiloturi esan behar zaiola bi txanda hauek daudela eta zerbitzu horietaz baliatzeko eskubidea dutela. Gainera txartelak "Eskatu Ofizioko Abokatu euskalduna. Zure eskubidea da" leloarekin ere helerazi zaie komisaldegietan jartzeko. Bestetik berdina egin da Gipuzkoako Epaitegi guztietan.

*Aitor Idiakez
(Gipuzkoako Abokatuen
Elkargoko Euskara Batzordeko
arduraduna)*



**Jon
Aiestaran**

(Goierriko
Bertso Eskolako
ikasle ohia)

Etorkinak

Gibaltrarrera heldu ohi dira pauso ugari emanak, egun argitan zeharkatzeko ondoren eginez planak; hobe da ilunpetan abitu beltzak nola diren danak hauek bereizten gauan behintzat izango dituzte lanak.

Goierri aldera etorri baldin bazara bizi asmotan, euskara ikasi ezazu, utzi gabe beti gerokotan zuriak eta beltzak elkarren lagunak izatekotan zurikeririk gabe hartuko zaituztegu era hortan.

Militarrak

Argi dago indarrez ukatzen digutela oinarritzko eskubide bat. Argi dago Frantziak eta Espainiak indarkeriaren mehatxuarekin galarazten digutela autodeterminazio eskubidea. Argi dago bortxakeria dela estatuen zutabea. Argi dago agintarien bosteko eta foto irribarretsuen gainetik armek arautzen dituztela nazioarteko harremanak. Argi dago, logika militarren gainean eraiki dugula mundua —kontrakoa indartsuenek sinestarazi nahi digute, txikiak janez bizi diren arrain handiek—. Argi dago, era berean, arrain txikiok oso zirrikitu estua geratzen zaigula logika militar horretatik ihes egiteko.

Beharbada ez dago hain argi, baina ematen du logika militar huts eta gordina aplikatzea erabaki duela ETak gure herriko gatazkan aurrera egiteko, eta horregatik hil duela Fernando Buesa PSE-Eeko legebiltzarkidea —hizkuntza militarra erabiliz, kalte korateral bat baita Jorge Diez ertzainaren heriotza.

Ekintza horren bidez kotasun etikoa aipatzen hasi gabe —ur uherrak baitira horiek, eta beste hamar mila faktore hartu beharko baikenituzke kontuan presoan egoera lazgarritik abiatuta—, eta komenigarritasun politikoari buruzko eztabaidari izkin eginez —leku askotan darabilten debatea baita hori—, logika militarren kontu horri heltzea egokia da.

Azken batean, denok baitakigu logika militarrek zer esan nahi duen: obediencia, hierarkia, eztabaidarik eza, disziplina, buru bizkor batzuek erabakitzea masa lokartuak nahi duguna... Justu-justu handien logika, autodeterminazio eskubidea, askatasuna, etorkizuna erabakitzeko hitza ukatzen diguten horien logika.

Eta hori guztia logika militarrekin zerikusi gutxi duen prozesu bat abiatu ondoren: urte askotan agortuta egondako eztabaida prozesu baten abiatze oparoa, eraikitze estrategia komunak adosten hastea, etorkizun kolektibo bati buruzko gogoeta, eta batik bat, desobediencia zibil handi baterako aurreneko urratsak martxan jartzea —pentsa zeinen eragingarria zatekeen EHk zabalduetako ildotik alderdi abertzale guztiek hauteskunde eta instituzio espainiar eta frantziarrei boikota egitea eta Udalbiltza bezalako instituzioak sendotu eta baliatzea—.

Alderdiek eta herritarrek, horixe baita desobediencia zibilaren funtsa, herritar bakoitza, zibil bakoitza, herri edo gizarte deritzon itsasoko tanta bakoitza erabakietan inplikatzeko. Horixe da, halaber, autodeterminazio eskubidearen oinarria, herritarren borondatea erabaki kolektiboan islatzea.

Baina zapuztu egin da prozesu hori. Motelegi omen zihoan. Hala diote logika militarren aplikatzaileek, eta tentsionatzera behartu bide dute beren burua.

Baina beharbada ez dira ohartu prozesua berez dela geldoa, independentziaren etsai handienak ez direla Frantzia eta Espainia baizik eta gure eguneroko bizimodu lasaia. Hau da, asteburuero eskiatzera joatea dela gehientzat benetan autodeterminatzea. Edo beharbada, hortaz ohartu dira, eta ezinegona, sofrimendua sortu nahi dute jendea esnatzeko. Baina beti ere, handiaren logika erabiliz: besteengatik erabakiko duten buru bizkorren logika, hierarkia eta obediencia.

Nik ez dut arrain handien herri batean bizi nahi, ez Frantzian, ez Espainian, ezta Euskal Herrian ere.



**Idurre Eskisabel
Larrañaga**

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



Marian Larrea
Dekoratzailen

Gustura sentitzeko guneak


ra, klasikoa gure uste sendo-
etan laguntzeko, betikotasu-
nean eta aldaketarik gabe,
egonkortasuna eta lasaitasu-
na aurkitzeko era izanez.

Beste batzuek giro kolo-
retsua eta argitsua behar du-
te bere izaerari alaitasuna eta
baikortasuna emateko.

Jarduera azeleratua izan
eta astean zehar denbora gu-
txi duten pertsonak, lasaita-
suna aurkitzen dute, sose-
gua, kolore beroak, goxota-
suna.

Bizitza mugitua eta eten-
gabeko aldaketak dituztenak
ere badaude, ez dute sustrai-
tu nahi, eta bere ingurua
guztiz funtzionala izango da,
elementu gutxi, baina beha-
rrezkoak, aurkituz.

Hitz batean, garrantzi-
tsuena etxean edo bulegoan
gustora egotea dela uste dut,
gehien gustatzen zaigun eran
diseinatuz, baina beti ere
zertarako prestatzen ari ga-
ren ahaztu gabe.



Batzutan, gure bizitzarentzat
nahi duguna, bizi, atsedena
hartu, lan egin, gozatu... be-
har dugun ingurunean nola
edo hala irudikatu nahi iza-
ten dugu. Norberaren luza-
pena izatea nahi dugu, etxe-
an, bulegoan edo lokalean
ordu asko pasatzen ditugula-
ko eta bertako paretetan eta
bera inguratzen duten pai-
saian txertatua ikusi nahi du-
gu. Gustura egoteko zerbait
falta zaizula dirudi, inguru-
arekin ez baitzara identifika-
tzen eta leku gogaikarria iza-
tera iristen da, konturatu ere
egin gabe, ez gara ondo sen-
titzen. Horretarako batzuk
elegantzia bilatuz joango di-

Lehiaketa

Galdera

**Zein sari irabazi-
zuen Julen Gabiriak
'Connemara gure
bihotzetan'
liburuarekin?**

Erantzuna martxoaren
20rako bidali behar da,
Ordiziako 124 posta-
kutxara. Bertan izena,
helbidea eta telefono
zenbakia zehaztuz.

**Saria 'Connemara
gure bihotzetan'
liburua eta
GOIERRITARRA-
ren kamiseta.**

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren
erantzuna: Ordiziakoak.

**Irabazlea:
Inko Mujika Lasa
(Legorreta)**



MUJIK A
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elbargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 610 02 00 41

BEASAIN

AMEBI



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka,9

LAZKAO

Euskara txukunean

Agindu / bidali

Behin eta berriz zuzendu behar izan dugu, batez ere ume eta gazteei, gaurko hau: **agindu** eta **bidali**. Gaur andereñoak ez digu lanik bidali. Baina, baina, andereñoak ez dizkio inori lanak bidaltzen, nola eta ez dagoen gaisorik, eta etxera bidaltzen ez dituen lanak. Andereñoak lanak agindu egiten ditu, hau da, lanak egiteko esan.

Garbi dago gaztelanien eragina dugula honetan ere **agindu** eta **bidali** nahasten ditugunean. Kontuz, beraz! Andereñoak ez digu lanik agindu esan behar dugu. Eskolako lanik ba al duzue? Agindu al dizue lanik andereñoak? galdetu behar dugu.

Maizpide Euskaltegia

Udaberriko tendentzia nagusiak zeintzuk dira?

Alde batetik, moda urbanoa deitzen zaiona, hau da, moda sport minimalista, ehun teknoak. Beste tendentzi bat etnikoa, adibidez hemen hippya dago, kolore fuertekin nahastuta. Hala eta guztiz ere, tendentzi guztiak nahas daitezke.

Zein kolore da nagusi?

Orain ez da kolore bat, kolore gehiago dira, ezin daiteke bat esan. Kolore fuerteak sartzen dira aurten. Laranja, fuksia, berdeak... kolore klasikoekin nahasketa.

Taila txikiek jarraitzen al dute?

Bai, jarraitzen dute, beti bezala.

Arropa erosoak ala eleganteak dituzu nahiago?

Arropa eroso baina elegantziarekin.

Zein kolore ez zenuke sekula jantziko?

Ni oso irekia naiz, kolore guztiak jarri ditzaket oraingo konbinazio berriekin.

Zer da ondo jaztea?

Armonia bat lortzea pertsonalitatearekin eta momentuko tendentziekin.

Goierri ondo jatzten al da?

Orokorrean bai, zentzu horretan sentsibilatate handia dago.

Arropak saltzeko psikologia jakin behar al da?

Batzutan bai, zeren zure bezeroari ulertu behar diozu zer nahi duen.

Zein diseinatzaileraren arropak erosiko zenituzke gustura?

Alberta Ferretti da momentu honetan gehiena gustatzen zaidana.

Nora joango zinateke jantzi horrekin?

Edozein lekutara, linea desberdinak baitauzkate.

Etxean egoteko jantzi bat?

Kamisetak.



**Maddalen
Barandiaran**

**Berriz Aranburu
arropa denda**

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta

elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



Suquia

**SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK**

ERAKUSKETA:

☎ 943 88 23 00

**Kale Nagusia, 10
ORDIZIA**

Aralar Bonsai Klub Elkartea sortu da Olaberrian

Aralar Bonsai Klub Elkartea sortu berria da Olaberrian. Ekialdeko jatorria duen bonsaiaren inguruan esperientziak elkartrukatzuz, landare honen inguruan etengabe ikasten joatea dute helburu elkartekideek. Japonia eta Txina aldean aspaldi errotutako teknika da bonsaia, baina gure artean berria da oraindik, duela 20-30 iritsi zen gurera. Bonsaiaren inguruan guk geuk ere zerbait ikasi dugu lagun havei esker eta ikasitakoa zuenganatu nahi dugu.

Uztailean sortu zen Aralar Bonsai Klub Elkartea. Bonsaiaren inguruan interesa duen edonor elkartzea dute helburu, bonsaiak eduki ala ez. Iritziak, ezagutzak eta esperientziak azaldu, arazoak



Mikel Flores, Javier Flores, Javier Mendizabal eta Pako Diaz.

konpondu, aberastu eta ikas-
tea da asmo nagusia.

Zaletasun handia omen dago bonsaiaren inguruan. Sarritan oparitzen den oparigaia da eta zaletasuna hortik sortzen da gehienetan. Dena den, elkartekideek adierazi dutenez, saltzaileen artean ere ez dago jakintza handiegirik bonsaiaren inguruan. "Liburuxkak ere badaude, baina ez da nahikoa izaten", diote.

Momentuan 15 bat bonsaizale daude elkartearen. Hilean 500 pezetako kuota ordaindu behar da bertako bazkide izateko. Hamabostean behin, asteazkenetan biltzen dira Iurreko eskoletan, arratsaldeko 7etatik aurrera. Elkartekide izan edo informazio gehiago nahi izanez gero, bi telefono dituzue aukeran: 607310494 edo 616037583 (arratsaldean edo gauez deitzeko).

Ekialdeko jatorria

Bonsaia, landaketa teknika berezi baten bidez, 30 metroko zuhaitza 30 zentimetrokoan erreproduzitzea da.

Gure artean teknika berria bada ere, Txinan eta Japonian Kristo aurreko 2. urteko arrastoak badaude. "Txinan heredatu egiten dira bonsaiak. Balio familiar handia daukate. 300-400 urtekoak badaude".

Estatu Espainiarrera eta Europara soldadu japoniarrek ekarri zuten II. Mundu Gerran, beraien herrialdeko oroigarri gisan. Beraz, hemen dauden bonsaiak 20-30 urte dituzte.

Edozein espezie

Lorontzi txiki batean hazten dira bonsaiak. Lur gutxi izaten dute. Ekialdeko jatorriko espezieak edo bertakoak izan daitezke. "Espezie asko egokitu daitezke. Denek ez dute balio eta batzuk egokiagoak dira. Adibidez, hosto handia duen espeziea ez da polita

Auto EASO

Ibabe industrialdea, 13 LAZKAO ☎ 943 16 30 15 ☎ 606 301 955

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

EGUZKI INPRIMATEGIA

Nafarroa Etorbidea, 9 ☎ 943 88 94 82
BEASAIN

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

izaten, zuhaitzaren proportziora ezin baitira hostoak txikitu", argitu digute.

Urte batzuk dituen bonsaia dendan erosi edo mintegi edo biberotetan landara bat erosi eta norberak landatzea izan daiteke bonsaia sortzeko aukera. Hazia erietetik ere sortzen dira baina denbora luzea behar da horretarako.

Bertako zuhaitz motak landatzeak badu abantaila nagusia bonsaizaleen esanetan: bertako girora ohituta daudenez, balkoian lasai eduki daitezkeela.

Bonsai erakusketa

Bonsaiak artea dira bonsaizaleen ustez. Hori dela eta, beraien urteetako lanak erakutsi nahi dituzte maiatzakainan aldera egingo duten erakusketan, Bonsai elkartearen berri zabaltzeko helburuarekin. "Pintore batek erakusketak egiten ditu eta koadroak apreziatuko dituzu ala ez. Ez dago pintorea izan beharrik erakusketa batera joateko. Bonsaietan berdin".

Bonsai bakoitzaren ezaggarriak azalduko dira erakusketan. Jendeak gehiago parte hartzeko, lehiaketatxo bat egingo dute, bonsai politena aukeratuz. Bere garaian izango dugu informazio gehiago.



Ureztatzea, inausketak, ongarrriak

Ez omen du zainketa berezirik behar bonsaiak. "Geranioak baino gutxiago. Balkoietako loreak neguan zaindu egin behar dira izozteetatik. Baina bonsaiak bertakoak badi-ra behintzat, ohituta daude hemengo giroa", diote.

Ureztatzeak garrantzia handia dauka. "Udan egunero ureztatu behar dira. Esperientziaren arabera, etxeko iturriko urak kloro asko izaten du askotan eta komeni izaten da ur hori 24 orduan aireatzen edukitzea. Terrazan daudenean, euri ura jasotzen dute eta horixe da onena".

Inausketak ere garrantzia handia dauka, zuhaixka ez baita 30 zentimetro baino gehiago hazi behar. "Neguaren amaieran edo ekain-uztailean inausen dira bereziki, nahiz

eta urte guztian inausi daitezkeen. Neguan, izotzik ez dagoenean, udaberri aldera, ondo zikatrizatzeke". Inausketaren bidez, bonsaiaren forma diseinatzen da. "Forma pentsatu eta piskanaka inausen joaten da, helburua lortu arte. Helburuak piskanaka-piskanaka lortzen dira eta ez egun batetik bestera".

Ongarriak ere garrantzia handia dauka. "Oso lur gutxi edukitzen dute eta sustantziak berehala galdu egiten ditu. Elikagaiak eman behar zaizkio ongarrri bidez".

Bonsaiarekin, urtaro ezberdinak jarraitzen dira etxetik bertatik. "Hostoak erori, jaio, lorea eman, fruitua eman... Fruituak ere ematen dituzte bonsaiek; sagarrak, gerezak... baina neurri txikikoak".

OSKARBI
OINETAKOAK

Mota guztietako eta adin guztietarako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

ZUHAIZKI
S. A. L.

ZURGINDEGIA

✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar
✕ ESKAILERAK NEURRIRA

Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Umeen arropa denda

Hasi dugu udaberriko denboraldia!

943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA

Goitur, Goierriko Ekimen

Goierriko gida eta mendiko bizik

Goierrin turismoa bultzatzeko asmotan, hiru produktu berri aurkeztuko dira martxoaren 15ean Zegaman. Goierriko gida, mendiko bizikletentzako ibilbideak eta Goierriko Ekimen Turistikorako Zentrua.

Goiekik, Goierriko Gara-pen agentziak, gauzaturiko Plan Estrategikoan kokatzen dira hiru produktuak. Plan Estrategikoaren filosofia bi ideiatan laburbildu daitezke, Nikolas Osinalde Goiekiko turismo teknikariaren esanetan: "alde batetik, garbi geratzen da bigarren sektorea mantendu behar dela, gure eskualdean dauden enpre-sak sendotuz; eta bestalde, aisialdi eta turismo inguruan zirkuito ekonomiko berri baten beharra ikusten da, etorkizunari begira lanpostuak sortuko dituen".

Turismoarekin zerikusia duen ekintzak garatzeko asmoa, dibertsifikazio estrategia bezala planteatzen da eta eskualdeak dituen errekurso eta argumentu desberdinak erabili nahi dira (arte, kultura, hizkuntza, natura, gastronomia). Elementu hauekin lan munduan sartzeko arazo-



ak dituzten giza taldeei lan aukerak eskaini nahi zaizkie. "Oinarri hau abiapuntutzat hartuta, Garapen Turistikorako Egitasmoa landua da 'Goierri, Euskadiren bihotza', produktuaren ideian erroturiko estrategia bat, agente publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren sendotzea nahi duena", dio.

Helburuak

Lau helburu nagusi izango ditu egitasmoak Osinaldek zehaztu digunez: batetik, "aterki zabal bat irudikatzen duen produktua handitzea eta sendotzea, argumentu tu-

ristikoei soportea berriak itsatsiz"; bestetik, "Euskadiko biztanleei eta kanpoko bisitariari egituratutako eskaintza turistiko bat luzatzea"; hirugarrenik, "Goierriko biztanle, botere publiko eta pribatuaren artean kontzientzia turistikoa areagotzea"; eta azkenik, "Gipuzkoarrentzat eta gure eskualdean bizi diren biztanleentzat Goierri liburu ireki bat izatea nahi dugu, gure ondasun paregabeaz ohartaraztea, azken finean, gure aberastasunak kanpokoaren begibistan jartztea eta gure kultura heleztea".

Dibertsifikazio estrategia bezala planteatzen da eta eskualdeak dituen errekurso eta argumentu desberdinak erabili nahi dira

Goierriko gida turistikoa

Bigarren aldiz argitaratu da gida turistikoa eta bi ale desberdinak dira: batean, euskaraz eta gaztelaraz aurkeztzen dira Goierriko elementu desberdinak eta bestean, ingelesez eta frantsesez. Gida turistiko honen helburua Goierriko eskualdeak dituen aberastasunak kaleratzea da eta bisitari, kazetari eta tour-operadoreentzat Goierriren ispilu garbia izan nahi da.

Gidaren lehenengo orrietan, eskualdeari buruzko sarrera edo aurkezpena dago. Ondoren, gure eskualdeko elementu esanguratsuak diren historia, teknologia, kultura, kirolak eta natura (Aralar eta Aizkorriko Parke Naturalak) aipatzen dira. Goierri osatzen duten 18 herrien erreferentzia ere egiten da. Azkenik, festa eta ohituren atalaren ondoren, Goierri egin daitezkeen bisitak aipatzen dira eta bisitaldiak egiteko behar diren zerbitzu desberdinak ere txertatzen dira: alojamenduak, jatetxeak, zerbitzu turistikoak, etab.

G U R E A

JANARIAK

**GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK**

☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Atiber etxea
MUTILOA

Autowag, s.a.

Audi



☎ 943 888 254 943 888 266
N-1 errepidea, 419 Km

Faxa: 943 888 105

BEASAIN

Turistikorako zentrua sortu da

iketako ibilbideak ere kaleratu dira

Goitur, Ekimen Turistikorako Zentrua

Goitur, ekimen publiko eta pribatuak lotzen dituen erakunde berria da. Turismoaren munduan sinisten dutenak eta beraien bizimodua arlo horretan ikusten dutenak biltzen dira. Helburuak hauek dituzte: Goierriren turismo garapenean interesaturik dauden agente guztien eskuhartze eta lankidetzatza berriak ezarri, Goierri eskualdea sustatzeko edozein eratako turismo jarduerak planifikatu eta koordinatu, turismo eskaintza zabaleraren garapen ordenatua bultzatuz, euspen irizpideen arabera Goierri turismo leku erakargarria izatea lortzea eta azkenik, aurrez aipaturiko helburuak lortzeko beharrezkoak izan daitezkeen ekintza osagarriak bultzatzea (foiletoan argitalpena, azoketan presentzia, turismo bulegoak irekitzea, ikastaroak antolatzea, etab.).

Hau guztia lortzearen erabakiak hartuko dituen lan taldea sortu da eta promoziorako material bezala, bazkide guztiak agertzen diren foiloto bat ere argitaratu da.



Mendiko bizikletarekin egiteko hamar ibilbide

Mendiko bizikletako edo BTTko ibilbideen gida, mendiko ibilbideak jasotzen dituen liburuak izan duen arrakasta ikusita eta jendearen eskabideei erantzunez egin da. 10 ibilaldi antolatu dira. Goierriko mapa batean markaturik daude bide guztiak, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa aipatzen da (bidegurutzeak, leku interesgarriak, iturriak, jatetxeak, alojamen- duak, etab.).

Bizikletan goazela gaine- an eramateko aproposa den mapa txiki bat ere txertatzen da gidan, eta zirkuitu guz- tiak, distantziak, denborak

eta zailtasunak agertzen dira bertan. Ibilbide hauek euska- raz eta gazteleraz argitaratu dira eta epe motzean ibilbide guztiak seinaleztatzeko as- moa dago.

Maila fisiko ona

Eskualdearen orografia kon- tuan hartuta, ibilbideak go- gorak omen dira (aldapak, lokatza, euria eta abar), eta horrek nolabaiteko maila fi- sikoa eta teknikoa eskatzen du BTTan. Dena den, egileen esanetan, formak eta norabi- deak kirolarien gustura alda daitezke. "Bide hauek go- mendio bat dira, eta ahalik

eta erakargarrien izan daite- zen pentsatuta daude", diote egileek.

BTT ibilbideak beste kul- tur ibilbide batzuekin txan- dakatzeko aukera ere bada: erdi-aroko herrietatik txan- goak, Idiazabal gaztaren ibil- bidea, Santiago Bideko pere- grinazioa, Zeraingo Kultur Parkea eta abar. Zenbait egu- netako ibilbideak egiteko, zirkuitu ezberdinak lotzeko aukera badago eta bira osoa eman Goierri inguruari, es- kualdean dauden babesle- kuez, ostatuez eta nekazaltu- rismoez baliatuz.



UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean




Beasaingo jatetxeetan gustura Udalak banatu dituen euskarazko kartekin

Besaingo Udaleko Euskara Batzordeak euskara hutsezko kartak banatu ditu herriko jatetxeetan. Ekimen berri hau otsailean jarri zen abian eta tabernariak gustura daude. Karta txukunak eta egokiak prestatu omen dituzte udalekoek. Orain herritarren esku dago erabiltzea. Kanpainaren leloak dioen bezala, 'On dagizuela janak eta kalterik ez edanak'.

Hilabete pasatu den hone-tan, Beasaingo hainbat jate-txeetara jo dugu Udalak ba-natu dituen euskarazko kar-tek zer nolako harrera izan duten jakiteko asmoz.

Jatetxe eta tabernetako



nagusiak gustura daude emaitzarekin. Kartak txuku-nak, politik eta egokiak dire-lakoan daude. Jendea ere ha-si da euskarazko kartak era-biltzen.

Beasaingo hamasei jate-txek egin dute bat ekimena-rekin: Abdon, Andre Mari, Arrano, Arrizar bodegoia,

Artzai-Enea, Atsegin, Baran-diaran, Bideluze, Egoki, Hai-zea, Kattalin, Loinatz, Ongi-Etorri, Rubioren, Urbieta eta Urkiola.

Jatetxe hauetan guztietan, kanpainaren leloa, 'On dagi-zuela janak eta kalterik ez edanak' esaldia edo ezauga-rria izango dute agerian.



Juan Manuel Garmendia
(Kattalin erretegia)

Nik beti euskaraz eta gazteleraz eduki izan di-tut. Kartak ere euskaraz izatea beharrezkoa ikusi dut nik. Orain Udalak euskara hutsean eman dizkigu eta oso ondo ikus-ten dut ekimena.

Josi Urkiola
(Urkiola erretegia)



tzen dut eta saiatuko naiz bezeroei euskarazkoa ematen.

Udalak emandako kartak oso politik dira, ondo eginda daude eta horrek seriotasuna ematen dio.

Astean zehar, nor-malean, ez dut kar-tarik izaten. Ahoz esaten dut dagoena. Euskaldunari euska-raz egitea gustatzen zaio eta Udaak emandako karta hauei esker euskaraz txukun nola esaten den ikasiko dut. De-na den, asteburuetan karta gehiago erabil-

David Fernandez
(Arrizar bodegoia)



Guk beti bi hiz-kuntzetan izan ditugu kartak, baina euskara hutsean bakarrik edu-kitzea garrantzitsua da. Euskara txukune-an daude kartak eta jendea ohitu gabe da-goen arren, gure lana da jendeari erakustea.

Kartak oso politik dira. Udalak lau eman dizkigu eta gehiago eskatzeko asmoa ere badaukagu. Oso eki-men interesgarria da.

Biosasieta, S.A. sortu dute Sasieta Mankomunitateak eta EVEk:

Sasieta zabortegiko zaborrak sortzen duen biogasa elektrizitatea bihurtzea helburu

Biosasieta S.A. enpresa sortu berria da, Sasieta Mankomunitatearen eta Energiarako Euskal Erakundearen (EVE) elkarlanari esker, %50eko partaidatzarekin. Beasaingo Sasieta zabortegian botatako zaborrek sortutako biogasa aprobetxatu eta energia bihurtzea dute helburua. Sasieta zabortegian bertan kokatzen da Biosasieta. Hamargarren urteurrena ospatzeko Sasieta Mankomunitatea proiektu berriarekin dator.

Sasieta zabortegian pilatutako zaborretatik sortutako gasak egoki bildu eta metano gas hori elektrizitatea sortzeko aprobetxatzea da Biosasieta enpresaren egitekoa. Motor-alternadore baten bidez egingo da. Bere zabalkundea egin dezan, sareari salduko zaio.

Abantaila sozio-ekonomikoak baino garrantzitsuagoak omen dira ingurugiroari dagozkion abantailak. Zaborte giaren desgasifikazio egokiarekin, batetik usain



Tximiniak jarri dituzte Sasieta zabortegian.

txarrak saihestuko dira eta bestetik, metano gasa atmosferara botatzea. Sasieta Mankomunitateko lehendakariak, Jon Berbeleak, aurreratu digunez, *"negutegi efektuaren bosgarren zatia metano gasari dagokio eta gas honen emisioaren hirutik bata zabortegietatik dator. Metanoak beroa harrapatzen du atmosferaren beroketa areagotuz"*.

Motor-alternadore bat izango du plantak lehenengo urteetan 475 kw-ko potentziaduna. Aurrikuspenen arabera, lehenengo urtean 2,3 milioi kwh energia sortuko da, bigarrenen 2,8 milioi eta

hirugarrenean 3,4. 2003. urterako bigarren motorra jartzea espero da, elektrizitatea bikoiztuz. 2005. urtean, 8.800 lagunentzako adinako kontsumoa produzitzea aurrirakosten da.

105 milioi

105 milioi pezetako inbertsioa egin da. Sortutako energia sareari salduko zaio 'Erregimen berezian', energia berriztatzaileen bidez sortuko energia arautzen duen Erret-Dekretuaren arabera.

Biosasieta proiektua 3E-2005 Euskadiren Energia Estrategiaren barruan kokatzen

da. Estrategia horren helburuak, energia aurrezte eta energia berriztatzaileak indartzea dira. Beste alde batetik, hondakin isurketari dagokion Direktiba berriaren eskakizunetan ere oinarritzen da. 1999ko apirilaren 26an onartu zen Direktiba eta biogasaren aprobetxamendu energetikoa du helburu.

Aurkezpena

Otsailaren 23an zen aurkeztekoa Biosasieta baina Fernando Buesa sozialistaren hilketarengatik bertan behera gelditu zen aurkezpena. Gauzak honela, martxoaren 8an egin zen enpresa berriaren aurkezpena, Beasaingo Udaletxean. Josu Jon Imaz Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua eta Esther Larrañaga, Ingurugiro Sailordeburua izan ziren bertan, Sasieta eta EVEko ordezkariekin batera. Goierriko eta Urola Garaiko udaletako ordezkariak ere bertan izan ziren.

Azkenik, lerro hauetatik aipatu behar dugu, Sasieta Mankomunitateak 10 urte bete dituela.

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

X A X O

**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN**

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea

☎ 943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO

Kultur astea

Datorren astelehenera arte iraungo duen Herri-eskolako kultur astearen barne, bada ekitaldi aipagarriak:

● **Gaur, martxoak 10:** Arratsaldean ume jolasak, eskola orduetan, eskolan bertan. Ondoren Zegamako eskolako ikasleek antzerki emanaldia eskainiko diete Aterpetxean Segurako ikasleei. 16:30etik aurrera, Laiotz Herri-eskolako dantzari taldea, herriko txistulariak, buruhandi eta erraldoiak. Beheko argazkian iazko emanaldia.



San Jose kofradia

Urtero bezala, aurtengoan San Jose egun berean, egingo dira San Jose kofradiko kobraletak. Martxoaren 19ko mezen aurretik eta ondoren Ospitalpean jartzen den mahaian aritzen da Laureano Telleria zeregin horretan.

Kofradiko kide izanik, urtero 10 pezeta ordaindu behar dira, kofradekidea hiltzean, meza atera diezaioten. 300 urte inguru dituen ohitura hau igande honetan errepikatuko da. Argazkian herritarrek San Jose kofradiko ordainketa egiten.

II. Margo lehiaketa nobelentzat

Iparra-Hegoa astearen barne, martxoaren 25ean. Gaia: Segurako edozein txoko edo irudi. Materiala norberak ekarri behar du. Segurako plazan azaldu behar da zapatu goitzerako. Lehenengo 3 sari dirutan (50.000, 35.000 eta 20.000) eta aipamen berezi bat (10.000). Bazkaria doan. Sari banaketa arratsaldean egingo da. Egindako lanak tabernetan jarriko dira ikusgai eta salgai. Iaz 25 margolarik parte hartu zuten. Argazkian iazko lehiaketako lan irabazlea.



● **Martxoaren 11.** Goizeko 10etan plazan eskolako neska-mutikoen arteko herri-kirolak plazan. Ondoren eskolako gurasoek eskainitako hamaiketako. Arratsaldeko 5etan 'Kutxo eta jai' kitarra-joleak haurrentzat, Aterpetxean. Sarrera: 300 pezeta.

Gaueko 10etan, Juan Carlos Irizarren piano emanaldia, Aterpetxeko antzokian. 16. diskoaren aurkezpena eginez lehen aldiz Goierrin. Sarrera: 500 pezeta. Udaren lagun-tzaz.

● **Martxoaren 12a:** Goizez eskolarteko ibilaldi neurtua Legazpin. Arratsaldean bide emanaldia Kultur etxean.

● **Martxoaren 13a:** Piano emanaldia haurrentzat eskola orduetan.

Atsedeneko txapeldunak

Otsailaren 25ean Atsedene jubilatuen elkartearen jokaturako karten finaletan, ondorengo emaitzak izan ziren: puntuan, Joakina Alustiza eta Bittori Telleria geratu ziren txapeldun. Tutean Euliojo Albisuk eta Ximon Garaialdek irabazi zuten. Musean ere, Euliojo Albisu eta Ximon Garaialde geratu ziren irabazle.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Oiartzun 4 - 0 Segura. Jubenilak: Segura 2 - 3 Ordizia.

Asteburuan etxean: Preferentea: Segura-Orioko, zapatuan, 16:30ean. Infantilak: Aizkorri-Aldapetarrak, jaien, 11:30ean.

Bola

Martxoaren 5ean Lasarten jokaturako Gipuzkoako erregularitate txapelketako saioa Xepeño Agirrek irabazi

zuen. 6 jardunaldiren ondoren, sailkapen orokorreko lehen postuan ageri da Xepeño. Oraindik beste 5 jardunaldi geratzen zaizkie.

Labur-labur

● Hauteskunde kanpainaren barne, gaur, martxoak 10, EHkoek Elorri elkartearen burutuko dute **ekitaldi politikoa** Asier Imazen hitzaldia-rekin eta haren ondoren izango den afariarekin.

● **Aste Santurako entsaioak.** Parrokiko korua hasia da Aste Santurako prestaketetan. Asteazkenetan iluntzeko 8etan egiten dituzte entsaioak Kultur etxean. Bestalde, kantu herrikoiak entsaiatzen ere hasia da korua.

● **Marrazketa ikastaroa** astearte honetan hasi da Kultur etxean. 13 lagun hasi dira. Ikastaroak asteartean 18:00etatik 20:00etara izango dira.

● Tobera musika eskolako **ikasleen kontzertua**, martxoaren 14an, arratsaldeko 5etan, Aterpetxean. Herritar guztiei eskainia.

● **Erretzeari uzteko ikastaroa.** Izena emateko epea martxoaren 17ra arte atzeratu da. Izen ematea eta informazio gehiago udaletxean.

● Iparra-Hegoako gastuei aurre egiteko **errifak** atera dira. Herriko tabernetan edota Elorriko bazkideren bati eskatuz eskura daitezke.

Joseba Telleria



Kazetaritzako altxorra argazkietan

Ikusten duguna sinesten dugu eta sinesten dugun horrek bakarrik lortzen du garrantzi soziala. Horrelaxe zen, eta horrelaxe izaten jarraitzen du gaur ere. Lazkaoko Kultur Etxean martxoaren 13tik 24ra bitartean izango den erakusketak horixe bera egiaztatzen du, hau da, denboraldi bati dagozkion deskribapen puntualak (1936-1970 urteen artean gauzatzen denak) aurrez esandakoa egiaztatzeko balio garrantzitsua daukala. Garai berriagoa da XX. mendea eta une jakin batean izan garenari eta beraz, oraindik ere apur bat garenari buruz hausnartzeko gonbidapen egoki bezala agertzen zaigu.

Kazetaritzako argazkigintzaren mende oso bat, 2. zatia (1936-1970) izenburupe-

ko erakusketa honen bitartez irudiek erakusten digutena ikusten dugu, eta batez ere, gure sentipen guztiek, ikuspen horrek bultzaturik, gogoratzeko eta erlazionatzeko gai direna ikusten dugu. Horretan datza, hain zuzen ere, kazetaritza grafikoaren edo fotokazetaritzaren balio nagusia, deskribapena eta dokumentua aldi berean uztartzeko gaitasuna izateari alegia.

Erakusten diren irudien jatorria Kutxa Fototekan dago. Argazki hauen bildumak izugarritzko altxorra osatzen du. Bertan ikertzaileek beren galderei erantzuna aurkitzen die eta jakinmina duenak bere grina asetzen du.

Elordi Garzia

Maizpideko ekitaldiak

Martxoaren 15ean, asteazkena, ikusentzunezko bat izango da Maizpide Euskaltegian. "Antton eta Gaizka, bide berri bat. Patagoniako Paine Dorretetan" lemapeko diaporama hau Andoni Areizagak aurkeztuko du. Bi mutil euskaldun hauen heriotza dela eta, beraien omenez Patagonian irekitako bide horren inguruko gaia da ikusentzunezko honetan jorratuko dena.

Martxoari agurra emateko berriz, Maizpidek hitzadi bat antolatu du hilaren 28rako. "Euskal Herriko lehenengo lurralde kontinentalaren sorrera eta bilakaera Artikutzako barrutian oinarrituz" izango da Eneko Agirre hizlariak landuko duen gaia.

Bi ekitaldi hauek, eta hilaren 21erako prestatuta dagoen bertso afaria, gaueko bederatzietan izango dira.

GOIERRITARRArentzako diru-laguntza

Iñaki Eskisabel Zurutuzak, Lazkaoko Udaleko idazkari kontuhartzaileak, bertako dokumentazioaren azterketatik ondorioztatu duenez 1999ko ekitaldian Goierritarra aldizkariari 366.450 pezetetako dirulaguntza eman zitzaion.

Emakumearen astea

Lazkaoko Emakumeen Elkarteak, Azkik, emakumearen eguna izan dela eta, jarduera ezberdinak antolatu ditu aste honetan zehar, hala nola, poesien irakurketa, "La Perla"-ra bisita, antzerki eta hitzaldiak. Gaur, emakumearen astea ospatzera zuzendutako ekintza hauei amaiera emango zaie. Horretarako, Azkik emakumeen afari bat antolatu du. Afaria Pryca merkatal zentruko Zaldiak jatetxean izango da. Olaberrira joateko autobusa 21,15etan aterako da Lazkaoko plazatik. Afari honetan edozein emakumek parte hartu dezake. Bestalde, martxoaren 15ean, elkartearen laugarren urteurrena ospatzen da. Hori dela eta, bazkideen artean txololatada egingo da. Eta ondoren, asanblada orokorra egingo da arratsaldeko bostetan.



Mus txapelketen garaia

Aurreko alean Aitz-Buru elkartearen jokatu behar zen mus txapelketaren berri eman genuen, otsailaren 26an jokatu zen eta 'Agitta' eta 'Zurdo' izan ziren nagusi bertan. Bigarren berriz, Arruabarrenatar ahizpak, Tere eta Mari Sol, geratu ziren. Umorederean igaro zuten arratsaldea bertara hurbildu zirenek.

Eta gaurkoan ere beste mus txapelketa baten berri eman beharrean gaude, oraingoan herriko Ostatuan izango dena, martxoaren 18an jokatu da. Beraz, badakizue eta animatu!

Bola jokoa martxoaren 18an

Goierriko bola txapelketaren barruan, kanporaketetako bat herriko bolatokian jokatu da. Martxoaren 18an izango da, goiz eta arratsaldez arituko dira bolariak bola jokoan.

Iñaki Ugalde

Festetako bilera

San Pedro jaien antolakuntza lanak aurrea doaz dagoeneko baina oraindik norbaitek bere aportazioa egin nahi baldin badu garaian dago. Hurrengo bilera apirilaren 14an izango da gaueko 10etan.

Jubilatuen txapelketak

Atsedan-Toki jubilatuen elkarrekin aurten ere bere bazkideentzat txapelketak antolatu ditu. Joko hauetan parte hartzeko beharrezkoa da elkarrekin bazkide izatea. Izena emateko epea martxoaren 10ean, ostiralean amaitzen da. Bazkide bakoitzak nahi duen joku guztietan har dezake parte. Hori kontuan izanik, 365 partehartzaile izan zirela adierazi digu Joxe Mari Etxeberriak, zuzendaritza taldeko kideak. Horieta-rik 100 emakumeak izan omen ziren. Jokuak goizez ala arratsaldean izateak nola bait ere eragiten omen du partehartzaileengan eta hori izan liteke goizeko jokoetan, hala nola, botean, zapoan eta tokan emakumeek parterik ez hartzearen arrazoia. Besteak beste. Hala baldin baltz, aurten badakizue emakume zaretenok, bezperan hurrengo eguneko lanak eginda jarri eta anima zaitzete gizonekin batera joko horietan aritzera. Bestalde, eskoban, puntuari eta seiko-urrean emakumeen partaidetza handiagoa izan omen zen, gizonenaren aldean.

Horrez gain, kanpoko jokoetan lehenengo hirurak sarritu dituzte. Barrukoetan

berri, lehenengo laurak. Halaber, kanpokoak goizeko 11etan hasiko dira eta arratsaldeko 4etan barrukoak.

Jokoetan parte hartu nahi duzuenok, honako telefono zenbaki hauetara deizakezue: San Gregorion. 943 18 00 78 (Jose Baztarrika), Ergonen 943 18 04 20 (Nikolas Arratibel), Aian 943 18 03 02 (Maria Eskisabel) eta San Martinen Atsedan-Tokira bertara zuzen zaitzekete.

Egunez egun honakoa da egitaraua:

Kanpoko jokoak (goizeko 11etan): Martxoak 14an Bote txapelketa, martxoak 16an zapoa eta martxoaren 18an toka txapelketa.

Barruko jokoak (arratsaldeko 4etan): Martxoak 14an mus txapelketa 4 erregetara, 16an seiko-urreko txapelketa, martxoaren 21ean eskobakoa, 23an puntuakoa eta azkenik martxoaren 25ean mus txapelketa 8 erregetara.

Izenik eman ez baduzue, oraindik ere garaiz zabiltzate eta animo!

Joko hauen antolakuntzan Ataungo Udalaren babesa jasotzen du elkartek.

Agurtzane Bikuña

Zuhaitz egun arrakastatsua

Eguraldi paregabea lagun zela ospatu zen joan den igandean, martxoak 5, aurtengo Zuhaitz eguna. Partaidetza bikaina izan zen Ataungo Udalak eta Joxemiel Barandiaran Eskolako guraso elkartek antolatutako ekimen honetan. Goizean zehar San Gregorio auzoan, Elizondo inguruan berreskuratu den lur eremuaren gerez, gaztaina, intxaur eta haritz landareak aldatu ziren. Egunari hasiera ordea, San Martingo plazatik abiatutako ibilaldiarekin eman zitzaion. Herribidean zehar eta San Gregoriora bitartean aditu batek zuhaitzei buruz emandako argibideak eman zituelarik. Landaketa ostean, hamaiketako eginez, gai honen inguruan haurrek eskolan egindako lanaren erakusketa izan zuten ikusgai bertaratu zirenek.



San Gregorio eguna martxoaren 12an

Datorren iganderako, martxoak 12, San Gregorio eguna, zenbait ekintza antolatu dituzte Artadi elkartek, garai bateko eguna berreskuratu nahian.

Goizeko 9etan, San Gregorioko plazatik irtenda, Lareora joango dira zuhaitz txertaketa egitera. Itzuleran, plazan bazkalduko dute trikitilari eta bertsolariak lagun. Bazkarirako txartelak 1.500 pezetan daude ohiko lekuetan salgai.

LABURREAN

● **Karlos Ioldi**, El Duesoko gartzelan dagoen preso herritarra gose greban da. Zenbaki hau kaleratzen denerako dozena bat egun eginak izango ditu gose greban. Ekintza honekin euskal presoek azken lau hilabeteotan aurrera daramaten borrokara atxiki da. Asteazken zehar hainbat ekintzatarako deialdiak egin dituzte herriko zenbait elkartek Karlosenganako atxekimendu gisan.

● Paskual iturri inguruan sortzen den **kotxe pilaketak** azken urteotan bertako bizilagunei sorrarazten dien arazoei laster emango die amaiera Udalak. Bizilagunekin eginiko bilera batean erabaki zenez, pibote batzuen bitartez mugatuko dira aparkatzeko lekuak eta gainera kanposantura doan bidearen alde bakarrean aparkatu ahal izango da. Ongi etorriak bitez neurri horiek bada!

● Aurreko zenbakian aipatzen genituen **Udal zerbitzuetarako proposamenak** aurkezteko epea joan den astelehenean, martxoak 6, amaitu zen. Horiak aztertu ondoren, martxoaren 15eko plenoan onartuko ditu Udalak baldintzak egokien betetzen dituzten eskaerak.

● Maiatzaren hasierarako espero da **zinema berriko lanak** amaitzea. Bestalde, postetxearen alboko gela Udalak hartu du eta erabilpen anitzetarako egokitu du. Orain, bertan ematen dira dantza, aerobic... ikastaroak.

● Joan den astean hil zen Ergoneko Aloskako Anttoni Etxeberria. Doluminak sendiari.

'Upeletan erronka' eta Mikel Urdangarin kultur astea amaitzeko

Astean zehar hitzaldiak, inauteriak eta emakumezkoen eguna ospatuta, asteburua bete-betea datorkigu.

Gaur martxoak 10, ostirala, mahaingurua izango da lehenengo, arratsaldeko 7etan, Bikario-etxean. 'Gazteak gara, baina non gaude? Jakin dezatela...' izango da hizketagaia. 13 eta 25 urte bitarteko gazteentzat zuzendua dago mahaingurua.

Gauerako, 'Upeletan erronka' ikuskizuna dago antolatua. Dantza, bertso eta trikitri ikuskizuna da. Iban

Agote, Oier Imaz, Kimetz Larrañaga eta Jon Maia dantzariak; Angel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizaso bertsolariak; eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak izango dira, gaueko 10,30etan hasita. Udal pilotalekuan izango da ikuskizuna. Sarrera 500 pezeta kobratuko da.

Larunbaterako, martxoaren 11rako, egun osoko egi-tarua antolatu da.

Goizeko 9etan, kultur ibilaldia egingo da herrian zehar interes artistikoa duen

txokoak ezagutzeko. 11etan, herriko gazteek zuhaitz landarak aldatuko dituzte herriko plazan, Zuhaitz eguna ospatzeko.

Arratsalderako, mus, briska eta bola txapelketa izango dira. Lehenengo biak Zezilio-enean, 15:00etan hasita eta bigarrena bolatokian, 16:30ean.

17:30ean, haurrentzako herri jolasak eta herri-kirolak izango dira eta 7etan talo festa, Arkupe elkartearen.

Gauean, 22:30ean, Mikel Urdangarin kantari bizkaita-

rraren kontzertua izango da pilotalekuan. Sarrera 500 pezeta kostatuko da.

Bukatzeko gogoratu, Bikario-etxean Uxua Gabarainen akuarelak eta herritarren eskulanak erakusgai daudela.

Kronista beharrean

Olaberriako kronika idatziko lukeen lagun baten bila dabil GOIERRITARRA. Interesatuok dei lehenbailehen 943889612 telefonora.

Inauteriak giro ederrean

Ugaro Herri-eskolako haurrek giro ederrean ospatu zuten inauteri eguna, martxoaren 7an. Eguraldia lagun izan zuten.

Eskolan Uraren inguruko sentsibilizazio kanpainarekin dihardute lanean, aurreko alean aurreratu genizuen bezala. Inauteriak ere gai berdinarekin inguruan ospatu dituzte, urari buruzko parodia prestatu zuten. Errekak, zaborrak, urak, gaiztoak, txintxoak... moztu ezberdinekin, beraien antzezlan egin zuten ikasleek.



Herri-eskolako ikasleen inauteri festa.

Zinea

Martxoak 16, 'La tormenta de hielo', 20:30ean, Herri Zineman.

Martxoak 23, 'Primary colors', 20:30ean, Herri Zineman.

Kronista beharrean

Legorretako kronika idatziko lukeen lagun baten bila dabil GOIERRITARRA. Interesaturik zaudetenok dei lehenbailehen 943889612 telefonora.

Izan zirelako gara...

Dagoeneko badira 23 eta 14 urte, 'Zaharra' eta 'Pototo' hil zituztela. Hilketa hauek gogoan hartuz, zenbait ekitaldi antolatu ditu Zaldibiako Amnistiaren Aldeko Batzordeak bi herritar hauei gorazarre egiteko.

Gaur, ostirala, ilunabarreko 8etan, poteoa egingo dute herrian zehar abstentzioa aldarrikatuz.

Etzi, igandea, eguerdiko 12etan, pilota partida jokatu dute frontoian. Ondoren poteoa egingo dute trikitilariekin. Eguerdiko 2,30etan herri-bazkaria izango da Gaztelu elkartearen (tikeak ohiko lekuetan). Bazkaloste-

an trikitilari, abeslari eta bertsolariak arduratuko dira giroa berotzeaz.

Datorren asteartean, hilak 14, iluntzeko 7,30etan, ekitalditxo bat egingo dute 'Pototo' zenaren jaiotetxe aurrean. Gaueko 9etan Juan Mari Olano eta Julen Zelarainek hitzaldia emango dute amnistiaren aldeko mugimenduen apustu politiko berriaren inguruan.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek lerro hauen bitartez agur bero bat bidali nahi die egun hauetan hemen egotarik ez duten herritarrei.

*Inaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*



Herriko mugak ezagutuz

Gailurrerantz Kirol Elkarteko mendi sailak asteburu bete-betea antolatu du martxoaren amaierarako.

Martxoaren 26an, larunbata, azken urteotan antolatutako irteeretan ateratako argazki eta diapositiben erakusketa egongo da Kultur etxean.

Martxoaren 27an, igandea, berriz, Zaldibiako herri-mugak ezagutzeko aukera izango dugu. Asteburuari amaiera egokia emateko, txangoaren ostean bazkaria!

Oharra: erakusketarako materialik baduzue, jar zaitezke harremanetan Txurru edo Aitor Olanorekin. Animatu denok gure herria ezagutzera!

Udaletik antolaturiko jarduerak

Martxoak 22: 'Hiru pauso, hiru norabide' diaporama. Josu Iztueta. 19:30ean.

Martxoak 20tik 27ra: 'Hiru pauso, hiru norabide' argazki erakusketa. 17:00etatik 19:30era.

Martxoak 24: Marife Nogales Perez eta Ana Belen Garcia Perez kantariak. 22:15ean.

Pello Zabala

Zahar Egoitzak antolaturik, Pello Zabalarekin solasaldia izango da martxoaren 16an, arratsaldeko 6etan, Kultur etxean. Eguraldia, tenporak, mapa meteorologikoa eta beste hainbat gai ei buruz arituko da.



95.5 / 103.7 / 88.8 MHz

Xiberoak
eraik beza
botza!

xiberoko botza

ALKARREKI ERAIK DEZAGÜN XIBEROKO BOTZA !

Izen - deitura

Helbidea

Herrialdea

- ☐ 1000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- ☐ 2000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- ☐ 5000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- ☐ pezetako laguntza bat ematen diogu Xiberoko Botzari

Gure kontu korrentearen ezaugarriak : Kutxa

2101 0045 91 001092747.3

Xiberoak eraik beza botza - P.K 7 - 64 130 MAULE

Pako Lizarralde, Amerikako hiru mendi altuenen gailurrean

Amerikako hiru mendi garaienak uztartzea izan dute helburu 'Hiru handiak' espedizioak, eta lortu ere lortu dute, tartean 33 urteko Pako Lizarralde beasaindarra zela. Argentinako Andean dau den hiru mendi igo dituzte. Ojos del Salado, 6.864 metro dituen, Pissis, 6.882 metrokoa eta guztietan ezagunena dena, Aconcagua, 6.959 metrokoa.

'Hiru Haundiak' espedizioa, 8 mendizale euskaldunek osatu dute, hauetatik hiru goierritarrek ziren, Jose Antonio Gorostidi Ormaiztegiarra, Ezkioko Juanjo Aranburu eta Pako Lizarralde. Gidari lanetan berriz, Felipe Uriarte mendizalea izan dute.

Zailtasunik handiena hotza eta haizea izan dute. Ojos del Salado igotzerakoan eguraldia ez zuten lagun izan, elurra egin baitzuen. *"Bidea zabaldu behar izan genuen eta hotz izugarria egin zigun, baina bertako ikuspegi ederak gure nekeak leundu zituen. Hegoaldera Pissis, mendebaldera Txileko gatz-lautada, basamortua...ikusituen", adierazi digu Pako. Pissisek ere paisaia berezia omen du. Esmeralda eta Negra aintzirak eta kanpamentu nagusia berriz, basamortuaren erdi-erdian. "Berrirori ere zorte txarrarekin egin genuen topo, haize bolada indartsuak eta hotza izan baitziren nagusi. Igoera egunean dena den, eguraldia lagun izan genuen". Ojos del Saladon ez bezala, espediziokide batek ezin izan*



Juanjo Aranburu, Pako Lizarralde eta Jose Antonio Gorostidi

zuen tontorra igo. Urtarrilaren 23an igo zuten Ojos eta 30ean berriz Pissis.

Otsailaren hasierarekin batera, azken erronkaren ametsari hasiera eman zioten eta otsailaren 8an egin zuten Aconcaguan gailurra. Aurreko mendietan ez bezala eguraldia lagun izan zuten hasieran, baina gailurra egiteko egunean, hotza, haizea eta lainoa izan zuten. Zoritxarrez ez zuten bertatik ezer ikusterik izan. Azkenean, zortzi kideak sei igo ziren.

Ezbairik gabe Aconcagua da alderdi hartan sona handiena duen mendia. Jendea bertan tropelean ibiltzen omen da. Beste bi mendietan berriz bakarrik ibili ziren eta paisaia aldetik ere gehiago gozatu zuten. Esperientzia politagoa izan zuten beraz Pissis eta Ojos.

Nekane Altuna

Chernobilgo haurrei laguntza

Chernobilen gertatu zen hondamendi nuklearraren eraginez haur asko gaisorik dago oraindik ere eta hauei lagundu asmoz, udara honetan gure etxeetan jasotzeko deialdia egin du berauei lagunduz lan egiten duen Chernobil Elkarteak. Uztailan eta Abuztuan, 160 haur ekarri nahi dituzte Euskal Herrira. Aire garbia arnas-teak eta garbi jateak on egingo baitie beren osasunei.

Haur hauetakoren bat zure etxean hartu nahi izango bazenu deitu 670419078 telefonora, astelehenetik ostegunera, iluntzeko 7etatik 9etara.

LABURREAN

I. Igartza beka-sariko idazlana kalean

1998an Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkarlanean argitaletxeak 'Igartza Saria' literatur sorkuntzako beka sortu zuten idazle gazteentzat. Lehenengo edizioan Julen Gabiria galdakaoarra izan zen irabazlea eta dagoeneko kalean da, 'Connemara gure bihotzetan' eleberria. Donostian egin zen liburuaren lehen aurkezpena, urtarrilaren 18an eta martxoaren 10an egingo da Beasainen, Udaletxeko Batzarre aretoan 19:00etan.

Idazkera aldetik konplexua eta ona omen da, istorioa berriz, bitxia eta ondo landua.

Bai Euskarari

Bai Euskarari Plan Estrategikoak herriz herriko lanari ekin dio. 62 herrik eman diote bilera edo hitzaldiak antolatzeke proposamenari baiezkua. Beasainen, martxoaren 14an izango da hitzaldia arratsaldeko 6,30etan Udaletxeko Batzar Aretoan. Kontseilutik joandako hizlariak Planaren berri emango die bildutako guztiei eta hauek eduki ditzaketen zalantza eta galderak argitu eta erantzuteko beta izango da.

Beasaingo Jaiak

Ekainaren 2an hasi eta 11a bitarte luzatuko dira aurtengo Loinatz jaiak. Hiru hilabete eskas falta dira baina dagoeneko hasi dira bilerak egiten gauzak zehazteko asmoz.

'Beasain Jaietan' aldizkaria kaleratzen dute jaietan. Beti Bizi Elkarteak arduratzen da lan honetan, eta dagoeneko beasaindar guztiei dei egin die animatu daitezen aurtengo alean artikuluren bat edo idazten. Lan hauek, Beti Bizi Elkarteak Porteria auzoan duen egoitzara eramane behar dira.

Goierriko gida turistikoaren aurkezpena

Martxoaren 15ean, goizeko 11etan, San Bartolome ermitan ekitaldi berezia izango dugu. Goitur, Turismo sailetik, Goierriko gida turistiko berria, BTT-ko (mendi bizikleta) ibilbide desberdinak batzen dituen foileto berri bat eta Ekimen Turistikorako Zentrua aurkeztuko dira. Ekimen berri hauek Goierriko Garapen Turistikoaren il-dotik doaz eta orainarte egin den lanaren osagarri izatea dute helburu.

Aurkezpenera Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik hainbat agintari etorriko dira. Eusko Jaurlaritzatik, Koro Garmendia (Turismo Sailburuordea) eta Mari Karmen Garmendia (Kulturako Sailburua). Foru Aldunditik: Jose Ramon Beloki (Ekonomia eta Turismo Diputatua) eta Jon Mikel Murua (Nekazaritza eta Ingurgiro Diputatua). Goiekiko ordezkariak: Alejandra Iturrioz (Lehendakaria), Juan Manuel Barandiaran (Zuzendaria) eta Nikolas Osinalde (Arduradun Teknikoa). Hauek gain, eskualdeko alkateak, turismo bulegoetako ordezkariak eta Goierriko Turismo Gidako agente pribatuak bertan izango dira.

Zeasma, biharko Zegama

Otsailaren 29an, Jabier Iñiguez del Val Juanka, Langaiko Zuzendari ohiak hitzaldi interesgarria eman zuen Kultur etxean, 'Zeasma, Biharko Zegama' taldeak antolatutik. Datu ugari eman zituen sektoreka, adinka, ikasketen arabera, e.a. Besteak beste, datozen urteetan, batez ere 3. sektore edo zerbitzuetan izango omen da lanpostu gehien eta horien artean 3. adinekoei zerbitzu ezberdinak eskaintzen.

Autoenpleguari buruz, azpimarkatu zuen autoenplegurako lehendabizi, lan egin behar den horretan esperientzia hartzea oso garrantzitsua zela eta "ofizioa" ondo ezagutu eta norbere gisara hasia gomendatu zuen. Bestalde, garbi geratu zen, gutxienez, FP2 mailako ikasketak behar-beharrezkoak direla lan "egoki" bat lortzeko.



Zuhaitz Eguna

Joan den martxoaren 2an, Aitxuri Herri-eskolako haur eta Udal ordezkariak zehazki zuhaitz landatu zituzten herriko erdigunean.

LABURREAN



Urrezko ezteiak

1950eko otsailaren 16an Zegamako elizan ezkondu ziren Mariatxo Azkonietak eta Joxe Arakamaenekoak. Joan den, otsailaren 19an, aukera izan zuten garai haiek berriro ezteia, beraien seme-alaba, iloba eta zenbait herritarrez inguratutik. Meza, iloben dantzak eta

kantak, Orkatz abesbatza, eta nola ez, bazkaria izan zuten eguna ospatzeko. Datorren urtean 51.a ospatzeko osasuna izan dezazuela.



Trialsin froga

Gipuzkoako txapelketarako puntuagarri zen trialsil froga jokatu zen Zegaman, joan den otsailean. Oraingoan ere Ruben Zabaleta izan zen garaile.

Euskara eguna

Datorren martxoaren 16 eta 17rako 'Euskara Eguna' antolatu dute Herri-eskolako irakasle eta ikasleek. Egun horietan antzerki eta abesti ederrez gozatzeko moduan izango gara. Bi egun hauetan arratsaldeko 2,30etatik 4etara Zinean dugu "zita" guztiok.

Aitzgorri F.T. parridak

Martxoaren 12an honako partida hauek jokatu dira:

Haurren 1. maila-igoera: Aitzgorri F.T. - Aldapetarrak.

Kadeteen 1. Maila - jaitsiera: Ostadar F.T. - Aitzgorri F.K.

Bideo emanaldiak

Martxoaren 12an, Rugrats pelikula botako da Kultur etxeko bideozelan, arratsaldeko 5etan.

Edurne Albizu

Bertso-afaria Argi Berri elkartean

Osinalde Sarirako baliagarria izango den bertsolari gazteen III. Argi Berri Saria jokatu da datorren martxoaren 18an Bustuntza Auzoko Argi Berri Elkartean. Nerea Elustondo (Legazpia), Jokin Uranga (Azpeitia), Joseba Gojenola (Berriatua), Anertz Muniategi (Bermeo), Iker Osa (Hernani) eta Ainhoa Agirreazaldegia (Bergara) arituko dira nor baino nor aipatu egunean ondoren apirilaren 15ean Gabirian jokatu den Osinalde Sari famaturako sailkatzeko balioko duten bi txartelak lortu nahian.

Hainbat eta hainbat bertsolari gazte on irteten ari dela eta, orain hiru urte Gabiriako antolatzaileak kanporaketak egin beharrean suertatu ziren. Aurretik, aipatu kanpo-



Argi Berri Elkartearen betetzea lortu zuen Gabiriako Osinalde Sarirako baliagarria izan zen iazko bertso afariak.

raketak Aztiri Elkartean (martxoaren 4an), Idiazabalgo Axari Elkartean (martxoaren 31n) eta Argi Berri Elkartean izango dira. Saio bakoitzetik bina bertsolari sailkatuko dira final handian parte hartzeko.

Bertso saioaren aurretik afariarekin gozatzeko aukera izango dute Argi Berrira hurbiltzen diren bertsozaleek. Honetarako txartelak salgai daude Bustuntza Auzoan bertan dagoen Iñaki Tabernan 2.500 pta.ren truke.

Elkartearteko mus txapelketa Txapel Gorri

XXI. Elkartearteko mus txapelketa ere hastear dago. Aurtengoan antolaketa lanak Txapel Gorri elkartekoei egitea egokitu zaie. Urtean zehar herriko elkarte bakoitzean jokatuako barneko mus txapelketetan irabazle eta txapel-dunorde izandako bikoteek ordezkatzeko dituzte euren elkarteak aipatu txapelketan. 2 multzotan banatzen dira bikoteak eta multzo bakoitzeko lehen bikoteek elkarren artean jokatu dute finala. Aurretik ligaxka jokatu da.

Martxoaren 13an hasiko dira lehen partidak eta finala martxoaren 24an jokatu da. Txapel Gorri, Azari, Mendizaleak, Boxing, Itxaropena, Argi Berri, Larrun Arri eta Jai Alai ekarteetako bina muslari bikote izango dira protagonistak.

LABURREAN

Inauterietako emaitzak

Ordiziako tabernarien elkarteak azken urteotako ohiturei jarraituz mozorro gau handia antolatu zuen Inauterietako aste-buruko larunbat gauean. Aipatu beharra dago euren asmoak erabat betetzea lortu zutela, izan ere herritarrek deialdiari erantzun ona eman zioten era guztietako mozorroak ikus baitzitezkeen kaleetan.

Sariak ere ez ziren nolanahikoak izan. Taldekako mozorroei dagokionez 'Goierrri Airlines' taldeak 100.000 pta. poltsikoratu zituen hainbat tabernetako zerbitzarien puntuaketak kontutan hartu ondoren. 'Miss' mozorroaz ibili zirenek 40.000 pta. irabazi zituzten, 'Irrintzi'k 20.000 pta., 'Peña Kalimotxo'k 20.000 pta.ko balioa duen afaria eta sari bera 'Boney MC' deituriko taldeak. Banakako mozorroei gagozkiolarik, 'Munduko izurdea' rentzat izan ziren 30.000 pta., 'Eskalea' rentzat 20.000 pta., 'Lupita' rentzat 10.000 pta. eta 'Mariatxi' eta 'Eskiatzaile'arentzat 10.000 pta.ko balioa duten afariak.

Emakumeen eguna

Emakume langilearen nazioarteko eguna pasa bada ere hainbat ekintza daude egiteko oraindik Kimetz-ekoek antolatuta. Honela martxoaren 14an Ordizia taldearekin antzerkia izango da Barrenan arratsaldeko 7etatik aurrera. 15ean, asteazkena,

musika eskolakoen saioa izango da Barrenan baita ere, martxoaren 18an afaria izango da eta azkenik, martxoaren 21ean 'Emakumeak eta berdintasuna' ikerketa lanaren aurkezpena izango da Barrenan.

San Jose jaiak

San Jose zaharren egoitzakoek eta jubilatuen elkarteek egitarau oparoaz gozatzeko aukera izango dute San Jose eguna aitzakitzat hartuta. Hainbat joko txapelketa, erakusketa, kantaldi, antzerki, abesbatza eta abar luze bat izango dituzte martxo hilabete guztian zehar. Egun handia martxoaren 19a izango da, noski, eta egun hori modu berezian ospatu nahiko dute gure herriko "zaharrek". Txistulariak, meza, hamaiketakoa, kontzertua, bazkaria, dantzaldia eta hainbat txapelketen irabazleei sari banaketa.

AEK-ren zozketa

AEK-k urte osorako soldata zozketatuz (1.800.000 pta. gutti-
ra) kalean ipinitako errifaren zenbaki saritua 71.041 izan da. Errifa-egutegi horren jabetuna bazara AEK-k Ordizian duen euskaltegiarekin harremanetan jarri besterik ez daukazu, gus-
tora emango baitzikizute hauek egokitutako sos guztiak (Santa Ana Ikastetxea. 943-889174).

Aitor Calvillo

Bola lehiaketan Juan Goenaga garaile

Otsailaren 27an jokatu zen Endika Alustizaren oroimeneko VII. Bola Lehiaketaren irabazle Altzako Juan Goenaga izan zen. 52 bolarik parte hartu zuten eta giro ederrean pasatu zuten eguna. Bolarien maila oso ona izan zen. Irabazleak 37 birla bota zituen eta ondoren sailkatutako 7 bolariek 36na birlatararekin parekatu zuten. Sailkapena zehazteko desentzateak jokatu behar izan zuten eta sailkapena honela geratu zen: 1. Juan Goenaga; 2. Martin Retegi; 3. Antonio Agirre; 4. Jesus M. Intxausti; 5. Jokin Izagirre; 6. Migel Mujika; 7. Joxe M. Etxebes-te eta 8. Luis Aizpeolea.

Zeraindarren artean, 8. Lekuan sailkatu zen Luis Aizpeolea izan zen onena.

Zuhaitz eguna

Joan zen igandean egin zen lehenengo aldiz, Zerainen, zuhaitz eguna. Ekitaldi honetako protagonista nagusiak herriko eskolako haurrak izan arren, herritar asko hurbildu zen beraien inguruan.

Ekitaldia goizeko 11,30etan hasi zen, txistu soinu alaituta eta eguraldi onak lagunduta, haurrak beren guraso eta aitonnen laguntzaz zuloak egin eta zuhaitzak landatu zituzten. 5 arte landara landatu zituzten denera.



Lehenengo zortzirentzat izaten dira sariak, beraz sarituen artean sailkatzea lortu zuen.

Sarien artean berezianak lehenengoa eta bigarrena izate

ten dira, Zeraingo Udalak eta Kultur elkarteak ematen dituztenak. Jabier Arrieta eta Tomax Ugartemendia eskulturgileen lanak izaten dira.

Diapositiba emanaldiak

Martxoaren 17 eta 24an, iluntzeko 9etan, Kultur etxean, diapositiba emanaldiak izango dira.

Martxoak 17, ostirala: Imanol Ugarteren 'Sahara basamortua zeharkatuz' emanaldia izango da.

Martxoak 24, ostirala: Joxe Ramon Agirrerren 'Bidaia nire erraietara, Nepal' emanaldia izango da.

Herriko festak eta urtekaria prestatzeko bilera

Martxoaren 21ean, arratsaldeko 7etan, Kultur etxean, herriko festak antolatzeke eta urtekaria egiteke lehenengo bilera izango da.

Mari Flor Mendizabal

Barduliarrak elkartekideen urteko bazkaria

Urtero ohi den bezala aurten ere Barduliarrak elkarteko kideek beraien urteko bazkaria izango dute. Martxoaren 18an Lierniko Mujika jate-txean, eguerdiko 2etan izango da.

Elkarteko bazkide bakoitzak bazkarira bere emazte edo lagunarekin joateko aukera du. Antolaketa lanak behar bezala burutu ahal izateko,

joan nahi duzuenok izena martxoaren 15a baino lehen, elkartearen horretarako jarria dagoen zerrenda eman dezazuen eskatzen zaizue.

51ko kinto lagunen urteko jaia

Aurten ere 51 urteko kinto lagunek beraien eguna antolatu dute. Elkarrekin eguna

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea

Herriko zergadun guztiei jakinarazten zaizue 2000. urteko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuaren Zergaren errolda onartua izan dela eta jendaurrean jarria dagoela. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hila beteko epean, erreklamazioak udal bulegoetan aurkez ditzakezue.

Era berean, martxoaren 1etik apirilaren 30era bitartean, aipatutako zergaren kobraketa ekingo zaio jakinarazten da. Epe hori igaro ondoren, ordainagiri guztiei %20 gainkargua ezarriko zaie.

ospatzeko asmoz datorren martxoaren 26an Tolosan elkartuko dira.

Eguerdiko 12,30etan Tolosako Santa Maria elizan, hildako lagunekin oroitu elkarteko meza eskainiko dute. 14:30ean, Izaskun jatetxean ospatuko den bazkarian elkartuko dira.

Egun horretan bazkarian parte hartu nahi duzuen 51 urteko kinto lagunek, zuen izena martxoaren 22a baino lehen antolatzaileriei ematea eskatzen zaizue. Izena, Izaskun jatetxera (943 67 5017) edo Jose Mari Tolosari (943 67 19 26) deituz eman dezakezue.

Aitziber Murua

Heber Garmendia, moto-krosean Euskadiko txapeldunorde

Heber Garmendia 16 urteko lazkaotarra Moto-kroseko Euskadiko txapeldunordea da. Hori jubenil mailan lortu zuen iaz, eta aurten apirilean 17 urte betetzen dituen maila nagusian lehiatuko da. Txiki-txikitatik datorkio zaletasuna. Aitak ekarri zion mobilete bat. Gasolina depositutik pusketa bat moztu eta iristeko moduan jarri zion. Horrelaxe hasi zen motor gainean ibiltzen.

Lehen trialean ibili zen baina orain dela 3 bat urte motokroseko 80cc-tako Yamaha bat erosi zuten. Lehenengo urtean ez zuen lasterketetan parte hartu, baina bigarrenean bai. 98an 3. egin zuen Euskadiko txapelketan eta 99an berriz bigarren.

125cc-ko motoa

Iaz 125 cc-ko Kawasaki ekarri zuten eta aurten 2. mailako juniorretan berarekin jarraituko du. Euskadin 2. mailako juniorrak nagusiekin lehiatzen direnez, aurten, maila nagusiko lasterketetan parte hartu beharko du. "Junior mailan gehienak 125 cc-ko motorra izaten dute. Baina, maila nagusian zilindrada guztietako motorrek parte hartzen dute eta hor oso zaila da aurrean ibiltzea", dio Heberrek.

Iaz Beasainen bi lasterketa izan baziren ere, moto-krosa ez da gehiengoarentzat oso kirol ezaguna izango. Euskadin 5 lasterketa inguru



Heber Euskadiko txapeldunorde sariarekin ageri da argazkian.

Lasterketetara familia guztia joaten da eta amak disfrutu egiten omen du. Orain anai gaztea ere lehiatzen hasi denez, doble disfrutuz duela dio.

izaten dira. Bakoitzak 2 txanda izaten ditu eta hauekako lehenengoari 20 puntu, bigarrenari 17 eta hirugarrenari 15 ematen zaie. Puntu gehien ateratzen duenak irabazten du lasterketa, eta lasterketa guztietan puntu gehiena ateratzen duenak irabazten du txapelketa. Hauxe gain beste bi lasterketa izaten dira Vasco-Navarro txapelketan. Lasterketak zirkuitoan izaten dira, iaz Beasainen egin zen lasterkean bezala. Atera aurretik ureztatu egiten dute lokatza egon dadin eta saltoak ere jartzen dituzte ikusgarritasuna emateko.

Lasterketetako sekretua

Lasterketetako sekretua irteeran dagoela dio Heberrek, "Garrantzitsuena ondo irtezea da. Hor egoten da lasterketaren %50a. Atzean irtetzen bazara, gero oso zaila da postuak aurreratzea".

Lasterketa guztietara ere ez dute joaterik izaten. Hemendik Madrilera artekoetara joaten dira, beherago joan eta ondoren itzultzeko oso urruti geratzen baita. Urrutira joan beharra izan arren gustora dabil Heber, "asteburuetan lagunak Ordiziara joaren dira eta ni, berriz,

Entrenatzera urrun joan behar

Inguruko lagun taldekoak elkarrekin joaten dira entrenatzera. "Beasain, Arama, Zumarragako jendea joaten gara asteburuean zirkuitoetara entrenatzera. Frantziara, Calahorrara, Alfarora, Calatayudera... joaten gara, Euskal Herrian ez dago entrenatzeko batere. Lasterketetarako 4 zirkuito daude baina entrenatzeko bakarria eta hau urtean zehar batere zaintzen ez dutenez, ez da ibiltzeko moduan egoten. Beasainen ere aste pare batean aritu ginen entrenatzen baina jendea kexatu egin zen hots asko ateratzen gurelako. Olaberriko udala zirkuitoa egitekotan ibiliz zen, baina federakuntzarekin ez ziren ados jarri eta azkenean ezerezean geratu zen asmoa", azaldu digu lazkaotarrak.

kanpora joaten naiz entrenatzera. Baina beraiek bezain ondo edo hobeto pasatzen dut. Koadrila bat bezala daukagu eginda".

Iaz besoak eta eskumuturrak asko nekatzen zitzaizkion eta mediku batek esanda prestakuntza fisikoa egiteko enpresa batekin ibili zen. Baina gehiegizko entrenamendua omen zuen hura. Orain bere kontura ibiltzen da. "Astean egun pare batean mendira joaten naiz txirrinduz. Koai aldera joaten naiz. Horrela gustorago nabil. Lehen bazirudien astean zehar indar guztiak agortzen nituela eta astebukaeran ez nuela indarrik. Orain neronek ikusten dut zer prestakuntza behar dudana".

Aurrera begira

Babesleak izatea oso zaila ikusten du Heberrek: "moto-krosa komunikabideetan asko ateratzen ez denez zaila da babesleak aurkitzea, aurreko muturrean dabilzenek bakarrik dituzte".

Aurtengo denboraldian duen asmo nagusia ikastea da, aurrean ibiltzea zaila baitago. "Handiekin ibiliz ikasten dela esten dute. 125eko motoarekin ikusten duzu handiagoa dutenak zure aurretik ateratzen direla, baina gero ez dira askoz ere gehiago ibiltzen".

Aurrerago begira zaila ikusten du moto-krosetik bizitzea, "Espainia mailan 4-5 bakarrik biziko dira. Beraz, ikasten jarraitu beharko dugu eta zaletasun bezala motoan ibili", bukatu du Heberrek aurrean dituen eskolako lanei begira.

ZINEA

GOIENIZ:

Martxoak 16, "Divorcing Jack", 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Martxoak 16, 'La tormenta de hielo', 20:30ean, Herri Zinema.

Martxoak 23, 'Primary colors', 20:30ean, Herri Zinema.



'Divorcing Jack'
David Caffrey
(Irlanda-Bretainia Handia, 1998)

1999an gaude, balizko edo fikziozko Ipar Irlandara pakea iritsi da (errealitatea ere bide horretatik doala ikusita, igarpen edo aurrikuspeneren balioa gehi ote diezaiokegu istorioari?). Orain hauteskundeetan murgildutako herrialde independente batean gaude. Dan Starkey 30 urte pasatxoko kazetari lotsagabe eta zurrumbilotsua da, inoren arri-muan jartzen ez den horietakoa. Lehen ministro izateko hautagai batek, Michael Brinnek, hautesleak liluratu eta bereganatu ditu, "arazorik ez" estiloaz baliatuta. Bi hauen arteko lotura berezirik susmatu ezin dugun arren, ordu gutxiren buruan, ezustean izugarrizko katramila eta istiluetan nahastuta ikusiko dute bren burua.

BEASAIN:

'El coleccionista de huesos'.
Ostirala 10: 22:15
Larunbata 11: 19:30 - 22:15
Igandea 12: 17:00 - 19:30-
22:15
Astelehena 13: 19:30 - 22.15

ORDIZIA:

'Solas'.
Larunbata 11: 19:30 - 22:15
Igandea 12: 19:30 - 22:15
Astelehena 13: 19:30

'Hercules'.
Igandea 12: 16:45

musika

ORDIZIA:

Martxoak 23, Juan Karlos Perez abeslariaren diskoaren aurkezpen-kontzertua, Usurbe Antzokian. Sarrera 1.000 pezeta.

OLABERRIA:

Martxoak 11, Mikel Urdangarin. 22:30ean, pilotalekuan. Sarrera: 500 pezeta.

ORDIZIA:

Martxoak 19, Beti Argi musika bandaren kontzertua, Plaza Nagusia, 13:00etan.



SEGURA:

Martxoak 11, Juan Karlos Irizar pianojolearen disko aurkezpena, Aterpetzeko antokian, 22:00etan.

antzerkia

ORDIZIA:

Martxoak 10, Juan Tamarizen 'Magia Potagia', 22:15ean. Herri Antzokian. (Gaztelera).

bestelakoak

BEASAIN:

Martxoak 10, 'Connemara gure bihotzetan' I. Igartza Beka saridunaren liburuaren aurkezpena, Udaletzeko Batzarre Aretoa, 19:00etan.


Martxoak 15, Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria, 18:00etan, Kultur Etxeko liburutegian.

Martxoak 22, Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria, 18:00etan, Ezkiaga Auzo Etxeko liburutegian.

dantza-bertso

OLABERRIA:

Martxoak 10, Upeletan erronka bertso, dantza eta trikitri ikuskizuna. 22:30ean, pilotalekuan.



**ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA**

Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
Plater Konbinatuak, Ogitarkekoak...

Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZKO TRATAMENDUA**

- LUNBAGO, ZIATIK, HERNIA DISKAL R.P.S. 213/97
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordura: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN



Orain eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

Bai Euskarari Plan Estrategikoaren gizarteratzea Beasainen

Martxoaren 14an, arratsaldeko 6,30etan, Udaletxeko Batzar Aretoan izango da Bai Euskarari Plan Estrategikoaren gizarteratzeko hitzaldia. Kontseilutik etorritako hizlariak Planaren berri emango dute lehenik eta segidan hauek eduki ditzaketzen zalantza eta galderak argitu eta erantzuteko tarte izango da.

bertsoak

ORDIZIA:

Martxoak 18, Bertso-afaria Arrano elkartearen, Oñati Beasainen aurka, 20:30ean.

ko argazki erakusketa, Usurbe Antzokian.

OLABERRIA:

Martxoaren 11ra arte, Uxua Gabarainen akuarela erakusketa, Bikario-etxean.

ORDIZIA:

Martxoaren 3tik 26ra, Jean Loup Bezosen pintura erakusketa, Barrenan.

erakusketak

BEASAIN:

Martxoaren 10era arte, Erreterriako Joakin Vararen argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

Martxoaren 12ra arte, Iñaki Ardeo Rubio margolariaren pintura erakusketa.

Martxoaren 17tik 26ra arte, Igartza Sariko mendiko argazkien lehiaketan hautatuta.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 12, Goierriko ibilaldi neurtua.

Martxoak 19, Aitzilehor.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Martxoak 11-12: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 88 01 52.

Martxoak 18-19: Atorrasagasti
(Bustuntza auzia - Ordizia) 943 88 29 34.



Diskoaren aurkezpeneko argazkia.

Juan Karlos Perezen 'Ikaro' disko berriaren aurkezpena Beasainen

Martxoaren 23an, gaueko 9etan, Beasaingo Usurbe Antzokian aurkeztuko du Juan Karlos Perezek 'Ikaro' disko berria. Itoiz taldeko kantariaren bakarkako hirugarren diskoa da 'Ikaro'. Ikaro mitologiako pertsonaia du abiapuntua Perezek.

Maskarada antzerki taldearekin ikusgarri berezia landu du eta antzezlanerako egindako musika da diskoak biltzen duena. Disko berri honen aitzakian, taula gainera itzuliko da, bai antzerki taldearekin, bai bere musikarekin ere. Beasainen egingo du beraz, berragerpena. Jaialdirako txartelak 1.000 pezetan salduko dira.

IX. Txiste eta pasadizo idatzi lehiaketa

Goiztiri AEK euskaltegiak IX. Txiste eta pasadizo idatzien lehiaketa antolatu du. 16 urtetik gorako edonork har dezake parte bertan. Hori bai, txisteak euskaraz idatzi behar dira, batuan edo euskalkian. Nahi adina txiste idatz daitezke. Apirilaren 18a baino lehen bidali behar dira txisteak, Beasaingo AEK-ko euskaltegira: Kale Nagusia, 5-3. Telefonoa: 943-889340.

Hiru sari banatuko dira. Beasaingo Arrizar bodegoian eta Artzai-enea jatetxean eta Olaberriako Zezilio-enea jatetxean, bina afari.

AEK-ren zozketa

AEK-k egiten duen urtebeteko soldataren zozketan, zenbaki saritua haxe da: 71.041. Zorioneko zenbaki hori baldin baduzue, dei AEK-ko euskaltegiren batera.



● Pintxoak aukeran

● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 **ORDIZIA**

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA

- ✓ Lehen eta bigarren hezkuntza
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Marrazketa teknikoak
- ✓ Larunbatetan klaseak

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Etxebizitzak

salgai

➔ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

➔ Pisua salgai Beasainen. Erdi mobleztaua. Egoera onean eta prezio interesgarria. Garajea aukeran. 943888318.

➔ Seguran etxe adosatua salgai. 153 m². Lorategia eta garajearekin. 943-881550.

➔ Jatetxea, taberna eta bi pisu salgai, Altsasun. 4.000 m²ko lursailarekin. 948563512. Gaez.

➔ Etxebizitza salgai Beasainen: 2 logela, egongela, sukaldea, bainua, terraza eta trastalekua. 60 m². 656721266.

➔ 3 logelako etxebizitza salgai Zegamako San Bartolome auzoan. Altzariekin nahiz altzaririk gabe. 943801788.

➔ Etxea salgai Lazkaon. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, bi balkoi, aluminiozko leiho berriak, gasezko berogailua etxe guztian. 943884096.

erosi

➔ Etxebizitza erosi nuke Beasainen, erdigunean. Igogailuarekin edota igogailurik ezean, beheko pisu bat. 943 880620.

Pabilioiak

errentan

➔ Lazkaon 783 m²ko pabiloia alokatzen da. Bi atekoa eta 7 metroko altuerakoa. Bi grua eta aparkaleku zabalarekin. Eraikin ezin hobea. 943 027053.

Lokalak

errentan

➔ 130 m²ko lokala alokatzen da. Almacen bezala erabiltzeko egokia. Hileko 48.000 pezeta. 616-411142.

Bestelakoak

salgai

➔ Philips solariuma (8 lanpara) salgai. Tenporizadorea eta bentiladorearekin. Egoera onean eta ia erabiligabea. 617520981.

➔ Telebista berri samarra salduko nuke, erdi prezioan. 943161835.

➔ Borsini markako akordeoia salgai. Ia berria. 943801433.

➔ Alessio markako 14"ko llantak salgai. Oso ongi zainduak, ia berria, 6 hilabetekoak. 943887458. Lan orduetan deitu.

➔ Tabernetarako egokia den hozkailua eta banaketan erabiltzeko tankea, 280 litrokoa, salgai. 943008023.

➔ Berogailuaren akumuladorea salgai. Berria. Egoera onean. 943887146.

Animaliak

salgai

➔ Husky siberiarra eskaintzen da. Urtebetekoa eta etxean hezitakoa. 656745299.

➔ Boxer arrazako txakurkumeak salgai, pedegreearekin. 696057346.

➔ Euskal ponnyak salgai. 943160919.

lagun bila

➔ Dar naiz, cocker beltz eta gorria. Neska baten bila nabil. Nahi baduzu deitu: 943 889690

Ibilgailuak

salgai

➔ Opel Kadett GT-a salgai. Gorria. Extrem. Ongi zaindua, SS-AF. Gaez deitu, 943-161941. Joseba.

➔ Zeus markako mountain bike salgai. Urdin metalizatu eta moratua. 10.000 pezeta. 667239378.

➔ Suzuki RMX motorra salgai. Morea, txuria eta horia. Extrem. Ongi zaindua. Matrikulatua. 215.000 pezeta. 617981810.

➔ Renault 21 autoa salgai, SS-AN. 943 653786.

➔ Enduro-ko Kawasaki KDX 125 cc. motorra salgai. SS-AN. 92. urtekoa. Egoera oso onean. 656 727300 - 943882907. Ibon

erosi

➔ Motorra erosi nuke. Ondo zaindua eta merkea. 667239378. 3etatik aurrera deitu.

Lana

➔ Ordiziako Herriko tabernan langile bat behar da egun osorako. Kurrikulamak Herrikoan bertan utzi.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

ENPRESA PROMOTOREA
Donostian. Erref.: 29889/1

MAKINAKO LANGILEA
Hernanin. Erref.: 29226/5

AROTZ LAGUNTZAILEA
Tolosan. Erref.: 29256/2

2 KOMERTZIAL JUNIOR
Donostian. Erref.: 29775/2

MANTENIMENDUKO ELEKTRIZISTA
Goierri. Erref.: 29716/1

SOLDEATZAILEA
Goierri. Erref.: 29492/4

SARBIDEEN KONTROLATZAILEA
Beasainen. Erref.: 29381/4

PROMOTOREA
Lasarten. Erref.: 29269/4

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
(Gizonezkoa) Donostian. Erref.: 29019/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

Artxanberriren ziriak, Patxi Errotaren ugaritasuna, Jainkoaren ateraldiak

Hiru gizon batera Bitoriano Gandiagak behiala erabili zuen izenburuaren antitesia dirudi. Eta ez naiz lotsatuko, aukera egiterakoan, huraxe izan dudala gogoan esatea. Egia da bestalde, hiru gizon batera datoz argitaratu berria dudana liburuan, idazpuru barenekin: Artxanberriren ziriak, Patxi Errotaren ugaritasuna, Jainkoaren ateraldiak. Nire liburuan ederki betetzen da txikitan dotrinan ikasi genuen hura: "Hiru pertsona diferente eta 'Jainko' bakarra".

Artxanberri

Artxanberriren dozena bat bertso edo bertso-zati baino ez datoz liburu osoan. Alafede, ikusgarriak eta banan-banako aleak denak ere. Lehendik ere bai, baina liburua prestatzen ari nintzela, bereziki, hauxe esaten nion neure buruari: "Zenbat bertsolari on-izeneko joan ote da mundu honetatik Artxanberriren aldean altxor eskasa utzita?". Egia da suertea behar zuela garai hartan, magnetofoi eta bestelakorik ez zenean, hain buru oneko bertsozalea ondoan egokitze-ko, baina ez den lekutik ez dago jasotzerik, buru ona izanda ere, eta Artxanberri, bistan denez, bazuen etorria. Hala ere, batzuk jasoagatik, hamai-ka, hamabi ere bai!, eramango zituen haizeak.

Emaitza urria, baina ona dela esan dugu; eta zer estilo-modu ote zuen? Bertsolari klasikoa zen Artxanberri, haren bizimodua bezalaxe; bertsoa ondo tolestu eta azken arrazoi fuertea ematen saia-

tzen zen beti. Baserritarra genuen jaiotzez, eta artzaina eta azeri-harrapatzailea ofizioz. Zaldibiko Enaitzagarakoa baserrian jaio zen, 1894an, eta Alizon hil, 1974an. Migel Frantsizko Zubeldia Aldasoro ziren Artxanberriren ponteko izen-deiturak.

Adibide gisa, bertso haxe gogoratuko dugu. Bizitzak badiu uste ez diren katramilak eta "Artza" izengoitia zuen hari ere ederra gertatu zitzaion. Ez dio, ba, Artxanberri, behin batean, puntua ipintzen:

Zein animalik dauka
itsusinen antza?
Konparazio gabe
neretzat da artza;
pausaje baldarra du,
itsusia dantza,
erregalo onena
zorria eta partza.

Patxi Errota

Jose Frantzisko Erauskin Garmendia ziren izen-abizenak. Zaldibiko Eskribau kale-etxean jaio zen 1874an Ez zen bat-bateko bertsolaria, bertso jartzalea baizik, nahiz eta 1935 Bertsolari Egunean parte hartu zuen. Sabino Aranak eragin izugarria izan zuen Patxi Errotarengan, zeharo abertzaletu zuen gure bertsolaria, eta horri erruz antzematen zaio haren bertsoetan, eta, batik-bat darabilen euskarari; garai hartako zaldibitarrek mintzatzaren ziren moldetik oso urruti dago.

Bertso jartzaile ugaria izan zen; ez, ordea, maila handikoa. Hala ere, interes handia dute haren bertsoek, garaiko



'Legorretako Jainkoa'

Askoren ustez, berriena eta algararik handienak sortu dituena. Izan ere, "Jainkoa" aipatzea irriari dei egitea da. Oso ezaguna zen Goierri nahiz hemendik kanpo Jesus Eskisabel "Jainkoa". Legorretan bizi eta hil (1974) baldin bazen ere, gaztetan Ordizian bizi izan zen, eta jaio, berriz, Lazkao jaio zen (1914), Lazkao Oloso kale-etxea;

hain zuzen ere, izen horixe ipini zion gero Legorretan ireki zuen tabernari. Pasadizo hori dotore kontatzen zuen: "Andrea antza eman zidan tabernazalea nintzela, eta, tapa, hark etxean taberna ipini! Baita ederki asmatu ere. Tabernan zintzotutako gizona naiz ni". Ateraldi entzunda, nork ez barre egin! Mostratarako, liburuan datozen beste pare bat ateraldi gogoratuko ditugu.

Ardo txarrik ez

Behin batean, tabernara sartu eta, adarra joz, esan omen zion bategi:

-Ea, Jainkoa, ardo onik badaukak?

-Bai, bazeukat, eta lastima txarrik ez edukitzea, hi bezalako alu bati emateko ere!

Ez ote zen zahartuko

Beste batean, Zaldibian, hainbatetan bezala, Patxi Iraolarekin egin zuen topo. Esku emanda elkar agurtu dute eta Patxi jarraian:

-Etorri al zara? Oraintxe ere gizon bikaina zaude zu, zahartu ere ez zara egiten.

-Eta Jesusek: -Horixe zeukat, bada, beldurra, ez naizela zahartuko!

Handik laster hil zen.

Hizketarako arte handiko gizona zen. Zebilen tokian zebilela, umorez blaitzen zuen inguru osoa. Bertsotan aritzea ere gus-tatzen zitzaion, baina ez zen hori haren dohainik handiena. Hori bai, beti bertsolariak non hura han izango zen. Bertsolari fran-ko bada Legorretako Olason, zerura joan aurretik, "Jainkoaren" ondoan, hamaika momentu gozo pasatakoa: Basarri, Uztapide, Artxanberri, Lazkao Txiki...

gertakizun askori buruz hitz egiten baitu; kronika moduko bat dira haren lanak. Mundua korritua ere bazen Patxi Errota; besteak beste, Kubako ger-ran ibilia zen. Bestalde, Beasaingo Fabrika Handian lan egin zuen. Gerrako kontuak, asto jateak, greba, hilketak, festak, omenaldiak... dira usuen darabiltzan gaiak. Aipatzen ari garen liburua miatzen duenak Patxi Errota-ren hogeita hamarren bat bertsoekin egingo du topo. Saia-

tu gara bere 3 liburuen labur-pen gisako bat egiten. Mostrarako bertso haxe ezarri nahi izan dut. 1924ko urriaren 19an Zaldibian egindako asto jateari paratuko sailekoa da: Asto-afari orretzaz ez daute aztuak; ez dituztela sartu aukada bastoak; batere itxuratzen badiu lastoak, diru egingo ditek oraintxe astoak.

Rufino Iraola



1980ko inauteriak Legorretan

1980. urtean Legorretako Ikastolako haurrek ospatutako inauterietako argazkia da.

Irakaslea: Jon Garmendia.

Zutik, ezkerretik eskubira: Aitor Ibañez, Asier Garmendia, Patxi Ibañez, Iban Eskitxabel, Andu Argiñarena, Mikel Lasa, Aitor Leunda, Javi Gonzalez, Jon Bekarte, Juan Joxe Allur eta Igor Larrea.

Makurtuta: Noemi Ezkurdia, Ramon Aldasoro, Ana Belen Delgado, Alaitz Otaegi, Maria Etxeberria eta Eguzkiñe Iturrioz.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Harremanetan jartzeko dei 943 88 96 12 telefonora. Argazkiak itzuli egingo dizkizuegu.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15

☎ 943 88 82 52

ORDIZIA

- Azken teknika eta nobedadeak
- Ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: ile erorketa, e.a.
- Makilajeak, Manikura...
- Kosmetika osagaiak

Presio altuko
solariuma

Eta laster
zutikako solariuma!




UROLA
bidaiak

Kale Nagusia, 36

☎ 943 80 53 11

BEASAIN

ASTE SANTUA

● COSTA BRAVA	04/17	. 30.600 pta	 (Busa / 7 egun)
● PORTUGAL	04/19	. 32.200 pta	 (Zirkuitua / busa)
● PARIS/EURODISNEY	04/19	. 26.800 pta	 (Busa, ostatu eta gosaria)
● SALOU	04/19	. 25.100 pta	 (Busa+hotela PO)
● LLORET DEL MAR	04/19	. 3.825 pta eguneko	 (Pentsio osoa)
● TIROL	04/19	. 47.900 pta	 (Zirkuitua)
● VENECIA	04/19	. 42.900 pta	 (Zirkuitua)
● VENECIA/FLORENCIA	04/19	. 45.900 pta	 (Zirkuitua)
● RHIN	04/19	. 47.900 pta	 (Zirkuitua)
● AMSTERDAM/BRUSELA	04/19	. 47.900 pta	 (Zirkuitua)
● PRAGA/VIENA/TIROL	04/19	. 69.900 pta	 (Zirkuitua)
● ERROMA	04/19	. 5.500 pta	 (Hegazkina+Hotela)
● EXTREMADURA	04/19	. 29.900 pta	 (Zirkuitua)
● RIAS BAIXAS	04/19	. 25.400 pta	 (Zirkuitua)
● BENIDORM	04/19	. 30.600 pta	 (Busa / PO)
● TUNEZ	04/20	. 60.700 pta	 (Hegazkinez)
● MALLORCA	04/20	. 47.300 pta	 (4 gau)
● MALLORCA	04/20	. 52.500 pta	 (7 gau)

PAZKO ASTEA

● TENERIFE	04/22	. 82.700 pta	 (Apartamenduan 9 gau)
● SALOU	04/24-05/01	. 18.400 pta	 (Busa / PO)
● BENIDORM	04/24-05/01	. 22.275 pta	 (Busa / PO)
● TUNEZ	04/24-05/01	. 59.700 pta	 (Hegazkinez)

**ASTE
SANTUA
2000**



FOTO ORDIZIA

ARGAZKI DENDA

(LEHEN FOTO SISTEMA)

DOMINGO UNANUE, 1 (GELTOKIAREN AURREAN)

ORDUBETEKO ERREBELATUA

24 ORDUKO ERREBELATUA

(ERREBELATU EKONOMIKOA)

BIFOTO ZERBITZUA (24 ordu)

BETI KODAK ROYAL PAPERREAN

10x15 edo 13x18

10x15 bakarrik

KARNETEKO ARGAZKIAK

6 ARGAZKI

750 pta.

20x25 ANPLIAZIOA OPARI

ORDUBETEKO ERREBELATU BAKOITZAGATIK 10x15 edo 13x18

2000-03-06tik 2000-05-06ra balio du eskaintzak



PRODUCTOS...

EXPRESS COLOR